



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

# **IKASLE IMMIGRANTEAK NAFARROAKO HEZKUNTZA SISTEMAN: TXANTREA AUZOAREN KASUA**

**GRADU AMAIERAKO LANA**

**EGILEA: Lainez Lanchetas, Ainhoa**

**ZUZENDARIA: Sagastizabal Emilio-Yus, Marina**

**ZUZENDARIKIDEA: Shershneva Zastavnaia, Julia**

**2021**

## AURKIBIDEA

1. Sarrera eta justifikazioa .....	5
2. Marko teorikoa: Ikasle immigranteak eta kulturarteko hezkuntza .....	7
2.1. Kulturarteko hezkuntza eta inklusioa .....	7
2.1.1. Kulturarteko hezkuntza .....	7
2.1.2. Ikasle immigranteen inklusioa hezkuntza arloan .....	10
2.2. Irakaslearen papera ikasgela kulturantz eta inklusibo batean .....	11
2.3. Eskolaren papera testuinguru kulturantz batean .....	13
2.4. Nafarroako Hezkuntza Sistema .....	14
2.4.1. Nafarroako hezkuntza ereduak .....	15
2.4.2. Nafarroako ikasle immigranteentzako harrera protokoloa .....	16
3. Ikasle etorkinak Nafarroako eta Iruñeko Hezkuntza Sistematan .....	20
4. Helburuak eta metodologia .....	24
5. Elkarrizketen emaitzak: Adituen pertzepzioa ikasle etorkinen integrazioan Nafarroako Hezkuntza Sistematan .....	26
5.1. Auzoaren eta ikastetxeen errealitatea eta ezaugarriak .....	26
5.2. Adituen ikuspegitik kultura aniztasuna Nafarroako Hezkuntza Sistematan: Txantrea auzoaren kasua .....	27
5.2.1. Ikastetxeen profila eta errealitatea .....	27
5.2.2. Matrikulazioa .....	29
5.2.3. Familiak .....	32
5.2.4. Ikasleen errendimendua .....	34
5.2.5. Gatazkak .....	36
5.2.6. Aniztasuna kudeatzeko baliabideak eta programak .....	37
5.2.7. Dibertsitatearen kudeaketa, plan estrategikoak eta oztopoak .....	38
5.2.8. Ebaluazioa .....	42
5.3. Proposamena: Elkar Ezagutzuz Proiektua .....	43
5.3.1. Proiektuaren aurkezpena .....	43

5.3.2. Arituen balorazioa.....	44
6. Ondorioak.....	47
7. Bibliografia .....	50
8. Eranskinak .....	53

## Laburpena

Immigrazioa gaur egungo errealitate bat da Euskal Herrian. Mundu globalizatu batean bizi garenez, herrialde ezberdinetako jendea elkartzen da eta fenomeno hau logikoa denez, hezkuntza sistemara iritsi da. Gradu amaierako lan honetan, Estatistikako Institutu Nazionalak emandako datuak deskribatu dira, herritar etorkinen datuak herritar nazionalen datuekin alderatu dira eta immigrazio-datuak aztertu dira, Nafarroako Hezkuntza Sistema aztertuz.

Halaber, lan honen atal praktikoan Iruñeko Txantrea auzoko bi ikastetxe publikoetan azterketa kualitatiboak elkarrizketa pertsonalen bidez egin dira gaian adituak diren pertsonen artean eta hezkuntza-esparrua ondo ezagutzen duten pertsonen artean. Adituen diskurtsoak entzunda, Txantrea auzoko bi ikastetxeetan immigrazioa eta aniztasunari dagokionez bizi den errealitatea eta informazioa aztertu da eta ondorioz, Iruñerriko eta Nafarroako egoera orokorra zein den analizatu da, elkarrizketatuen motibazioari, jarrerari eta egitasmoei loturiko alderdietan sakonduz.

Amaitzeko, Garcia Galdeano eta Bernart Etxepare ikastetxeei zuzendutako *Elkar Ezagutzuz* proiektua diseinatu eta aurkeztu da eta horrekin batera proiektuaren inguruko adituen iritziak eta ikuspuntuak.

**Hitz gakoak:** immigrazioa, kulturarteko hezkuntza, kulturaztasuna, integrazioa, inklusioa.

## Resumen

La inmigración es una realidad actual en Euskal Herria. Como vivimos en un mundo globalizado, se juntan personas de diferentes países y este fenómeno lógicamente llega al sistema educativo. En este trabajo de fin de grado se describen los datos proporcionados por el Instituto Nacional de Estadística, se han comparado los datos de la población inmigrante con los de la población nacional y se han analizado los datos de inmigración, analizando el Sistema Educativo de Navarra.

Asimismo, en el apartado práctico de este trabajo se han realizado mediante entrevistas personales entre personas expertas en la materia y personas que conocen bien el ámbito educativo análisis cualitativos en los dos centros públicos del barrio pamplonés de la Txantrea. Después de escuchar los discursos de las personas expertas, se ha analizado la información y la realidad que se vive en los dos centros educativos públicos del barrio de la Txantrea en relación a la inmigración y a la

diversidad y, en consecuencia, se ha analizado cuál es la situación general de la comarca de Pamplona y Navarra, profundizando en aspectos relacionados con la motivación, actitud hacia la inmigración y proyectos de las personas entrevistadas.

Para finalizar, se ha diseñado el proyecto *Elkar Ezagutuz*, dirigido a los centros García Galdeano y Bernart Etxepare y con él se muestran las opiniones y puntos de vista de expertos en torno al proyecto.

**Palabras clave:** inmigración, educación intercultural, multiculturalidad, integración, inclusión.

### **Abstract**

Immigration is a current reality in the Basque Country. As we live in a globalized world, people from different countries come together and this phenomenon has logically reached the education system. This final degree work describes the data provided by the National Institute of Statistics, compares the data on the immigrant population with those of the national population, and analyses the data on immigration, analysing the Navarre education system.

As well, in the practical part of this work, qualitative analyses in the two public centres of the Txantrea district of Pamplona were carried out through personal interviews between experts in the field and people who are familiar with the educational field. After listening to the speeches of the expert people, the information and the reality of immigration and diversity in the two schools of the Txantrea district were analysed. Consequently, the general situation in the region of Pamplona and Navarra was analysed, focusing on aspects related to the motivation, attitude towards immigration and projects of the people interviewed.

Finally, has been designed the *Elkar Ezagutuz* project, aimed at the García Galdeano and Bernart Etxepare centres, and with it the opinions and points of view of experts on the project.

**Keywords:** immigration, intercultural education, multiculturalism, integration, inclusion.

## 1. Sarrera eta justifikazioa

Mundu konplexu batean bizi gara eta fenomeno sozialak oso azkar igarotzen dira. Euskal Herrian, XIX. mendetik gaur arte immigrazio-mugimendu asko izan dira eta ondorioz, gaur egun gure gizartea gehien kezkatzen duen gaietako bat da.

Esan bezala, immigrazioa gaur egungo errealitatea bat da Euskal Herrian eta mundu globalizatu batean bizi garenez, herrialde ezberdinetako jendea elkartzen da. Bistan denez, errealitate hau eskoletara iristen da eta oso aberasgarria eta onuragarria izan daitekeena, kasu askotan, kontrakoan bihurtzen da. Immigranteak errefusa, eraso edota jazarpen egoerak pairatu behar dituzte eta askotan, ez dira guztiz eroso sentitzen eskola edo gela baten barruan. Azken hori saihesteko eta ikasgelan globalizazioaren alde positiboa ateratzeko, irakasle garen aldetik, ikasle guztien inklusioa lortzeko estrategia batzuk erabili eta jarraibide batzuk hartu behar ditugu. Desberdina dena beldurtu egiten gaitu baina, desberdintasun hori aprobetxatzea eta ikasle guztiengandik ikastea da egin behar duguna. Ikasleek abantaila hori ikusiz gero, jasoko duten esperientzia oso aberasgarria eta esanguratsua izan daiteke.

Lehen aipatu bezala, ikasle immigranteak hezkuntza-geletan sartzea gero eta garrantzitsuagoa da, jatorri desberdinetako pertsonak bizi diren herrialde multikultural batean bizi garelako. Horregatik, eskolak kalitatezko irakaskuntza bermatu behar du eta, horretarako, ikasle bakoitzaren behar espezifikoei erantzun behar die. Eskola haurrengan aniztasun kulturalarekiko jarrera positiboak sustatzeko eta herritar etikoak hezteko espazio egokia da eta horregatik oso inportantea da irakaslearen figura, ikasgeletan balioak transmititzen dituelako. Logikoa denez, ezin da hezkuntza sistemaren esku utzi ikasle immigrantearen eta haren familiaren integrazioaren pisu guztia. Hala ere, fenomeno horren interpretazio negatiboa hezkuntzaren bidez alda daiteke. Immigrazioa kausa anitzeko fenomeno plurifaktoriala da (bi faktore baino gehiago) eta, ondorioz, tratamendu globala behar du; bestalde, ezin da uniforme izan, egoera bakoitzak jarduketa jakin bat eskatzen duelako. Nolanahi ere, kulturen arteko bizikidetzak lortzen lagun diezaguketen jarraibide eta printzipio orokorrak ezartzea beharrezkoa da. Hezkuntzak bere protagonismoa berreskuratu behar du gizarte justuagoak eta gizatiarragoak eraikitzea eramango gaituzten balioen transmisioan.

Lan honetan, gaiari buruzko literaturaren bidez, oinarri zientifiko eta estatistikoen bidez eta Iruñeko Txantrea auzoko bi eskola publikoetan egindako elkarrizketen bidez, aniztasunari begira auzo berdinean bizi diren bi errealitate ezberdinak ikertu dira. Honekin batera, immigrazioari begira, D eta A-G ereduaren arteko bereizketaren

arrazoiak, kultura-aniztasunaren kudeaketa, ezarritako protokolo ezberdinak eta eskolak betetzen duen papera nolakoa den ikertu dira.

Gradu amaierako lan hau garatzeko dudan interesa eta motibazio pertsonala hiru alderdi ezberdinetan banatzen da. Lehenengoa, oso enpatikoa ez den eta pertsona batzuen zaugarritasunaren aurrean solidarioa ez den gizarte bat behatzeak eragiten didan tristura da. Bigarrena, bizi naizen auzoa hezkuntza eta immigrazioaren aldetik hain polarizatua ikustea da. Eta, hirugarrena, bigarren mailako praktikak immigrazioa %90 baino gehiagokoa zen eskola publiko batean egitea izan da. Eskola horretan bizitako esperientziak oso esanguratsuak izan ziren eta nire pentsaera eta mundua ikusteko modua guztiz aldatu zen. Nola kudeatzen da immigrazio-indize handia duen eskola bat? Zer estrategia erabil ditzakezu gelan giro ona lortzeko? Nola jokatu beste herrialde batetik etorri berri den ikasle batekin? Nola konpondu balizko aurreiritzi, arrazakeria edo bestelako arazoak?

Amaitzeko, testuaren egiturari dagokionez, lau zati garrantzitsuenetan banatuta dago. Lehenengoa, marko teorikoa da eta bertan, kulturarteko hezkuntza eta inklusioa, irakaslearen papera ikasgela kulturantz eta inklusibo batean, eskolaren papera testuinguru kulturantz batean eta Nafarroako Hezkuntza Sistemari buruzko informazioa emango da. Bigarren atalean, Estatistikako Institutu Naziolalak Espainian, Nafarroan, Iruñean eta Txantrea auzoan ematen dituen datu eguneratuak eskaintzen dira. Hirugarrenean, elkarrizketetan jasotako informazioa ikertu da eta sortu dudan *Elkar ezagutzuz* proiektua aurkeztu da, adituen iritziak jasota. Amaitzeko, lan osoaren inguruko ondorioak idatzi dira.

## **2. Marko teorikoa: Ikasle immigranteak eta kulturarteko hezkuntza**

### **2.1. Kulturarteko hezkuntza eta inklusioa**

Lehenik eta behin, immigrazio hitzaren esanahia zein den jakitea beharrezkoa da. Euskaltzaindiak definitzen duen bezala, "immigrazioa herrialde batera atzerritik etortzea eta bertan kokatzea" da (Euskaltzaindiaren Hiztegia, d.g., 1 definizioa). RAEren arabera aldiz, "atzerriko herrialde batera iristea bertan errotzeko" edo "bizi zen lekua ez den beste leku batean kokatzea (...) bizibide hobeen bila" da (Real Academia Española, d.g., 1 definizioa).

Lehen aipatu bezala, gero eta globalizatuagoa den mundu batean bizi gara, non kulturen nahasketak gero eta ohikoagoak diren eta Martín eta Margalef (2000) autoreen arabera "gure gizartearen oinarriko ezaugarrietako bat aniztasuna da. Hainbat tradizio, kultura, hizkuntza, antolaketa-modu eta praktika sozial, sinesmen eta balio elkartzen diren gizarte batean bizi gara, elkarrekin bizi direnak eta elkarri eragiten diotenak " (64. or.).

#### **2.1.1. Kulturarteko hezkuntza**

Ikasle guztien inklusioa errazteko, kulturarteko hezkuntza bilatzen dugun gakoa izan daiteke, ikasleen ezaugarriak edozein direla ere. Baina, zer da kulturartekotasuna? Kulturartekotasuna gizarte-eredu gisa definitu dezakegu eta, aniztasunarekiko errespetuaren, aukera-berdintasunaren eta kultura desberdinetako pertsonen arteko trukea eta elkar aberastea ahalbidetuko duten gizarte-inguruneen existentziaren printzipioak sustatzen ditu (Essomba, 2006). Definizio hori kulturartekotasuna zer den ulertzeko oso garrantzitsua da; izan ere, ez da eskolari eta haren muga arkitektonikoei soilik dagokien lan edo erronka bat, muga horiek gainditu behar baitira gizarte-eredu bat lortzen saiatzeko, non aukerak eta errespetua denontzat berdinak izango diren, haien jatorria, pentsamenduak, sinesmenak eta ohiturak edozein izanik ere.

Baina hori lortzeko, lehenik eta behin, kulturartekotasun eredu hori hezkuntza sisteman ezarri behar dugu; izan ere, dakigun bezala, gizarte jakin bat sortu edo aldatu dezakeen oinarri boteretsuena da, gaur egun eskoletan ditugun haurrak gurearen etorkizuna baitira. Kulturarteko hezkuntzaren helburua, beraz, guztiontzako hezkuntza bideratzeko modu gisa ikusi behar da, ikasle bakoitzari bere kulturari aurre egiteko modu gisa. Horrek ikasle bakoitzaren beharrei erantzun behar die, modu pertsonalizatuan, dauden kultura-aniztasunaz ere jabetuz (García eta Goenechea, 2009).



Jarraian, kulturarteko hezkuntza garatzeko sei baldintza aurkeztuko ditut, Migrazio eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak egin zuten azterketaren araberrakoak direnak (Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioa, 2000).

Lehenengo baldintza eskola komunitate osoan integratzea izango litzateke. Egia da, legeak ikastetxeko hezkuntza-proiektuak espazio jakin batean eta eskola jakin baten prestakuntza-programaren egokitasuna bermatzen duen tresnatzat hartzen dituela, baina, errealitatean, proiektu horiek ez dira beti egokitzen auzoaren eta hiriaren ezaugarri soziokulturaletara eta, batzuetan, tokiko garapen-proiektuetan sartzen dira. Baldintza hori bermatzeak ondorioak ditu irakasleak eta klaustroa errealitatearen ikerketan eta hezkuntzako esku-hartzearen plangintzan talde gisa prestatzeko. Kasu guztietan, hurrengo hiru puntuak beharrezkoak dira: lehenengoa, irakaskuntza publikoa itunpekoaren edo pribatuaren gainetik jartzea izango litzateke. Bigarrena, haurrak ikastetxe publikoetara eta itunpeko ikastetxeetara modu zuzenean eta homogeneoan atxikitzea lurralde bakoitzean. Azkenekoa, eskola-ikuskaritzak atxikitzeko eta matrikulatzeko prozesuaren jarraipen zorrotzagoa egitea izango litzateke. Oso garrantzitsua da antolaketa, informazioa eta beka-sistema etorkinen errealitatera egokitzea, seme-alaben hezkuntzan aukera berdintasunerako eskubidea bermatzeko.

Bigarren baldintza, haurren banakako beharrei erantzutea beharrezkoa dela da. Erronka aniztasuna eta ulergarritasuna bateragarri egitea da, irakaskuntzaren kalitate-mailak eta haur bakoitzaren hezkuntza aukerak murriztu gabe. Ildo horretan, haur bakoitzaren premia indibidualak aztertu behar dira, hezkuntzakoak, sozialak, ekonomikoak eta abar, irtenbide posibleak bideratzeko. Prozesu horretan, estereotipoak kendu behar dira eta ez pentsatu kultura bereko gizabanako guztiek itxaropen, interes, trebetasun, zailtasun edo behar berberak dituztela. Argi geratzen da haur bakoitzarekin koordinazio eta jarraipen egokia egin behar dela goragoko zikloetara igarotzean.

Hirugarren baldintza, hezkuntza sisteman aukera-berdintasuna bermatzea izango litzateke. Baldintza honek lotura zuzena du lehenengoarekin; izan ere, ikastetxearen proiektua ingurune jakin batean gizarte eta hezkuntza arloan esku hartzeko proiektua denez, helburuetariko bat da aukera berdintasuna bermatzea, ez bakarrik eskolan bertan, baizik eta horien sustraietara joanda komunitatean. Ildo horretan, familien gainean modu integralean jardun behar da, ez bakarrik eskolaren barruko haurren gainean, haien eskubideei eta betebeharrei buruzko informazioa eta herritarrentzako prestakuntza bermatuz. Gizarte Zerbitzuetako arloek udaletan edo barrutietan duten zeregina funtsezkoa da eta zentroak erakundeen arteko koordinazioa sustatzea eskatzen du. Familia etorkinaren harrera prozesua bereziki zaindu behar da,

komunikaziorako behar diren baliabideak ziurtatuz. Era berean, ezinbestekoa da herritar gehienekin informazio eta sentsibilizazio lana egitea, jarrera arrazistak, paternalistak edo segregazionistak susta ez daitezen.

Laugarrena, sistemari baliabide eta tresna egokiak ematea da eta baldintza honen barruan lau puntu desberdintzen dira. Lehenengoa esparru juridikoa da eta honetan, irakasleen prestakuntza hezkuntza-proiektuen plangintzan hobetzea eta honek prestakuntzan, benetan curriculum eta prozesu malguak kontuan har ditzaten, orientazio konstruktibista eta esanguratsuekin lortzea du helburu. Bigarrena, giza baliabide eta baliabide metodologikoak dira, hala nola, prestakuntza eta irakasleen hautaketa. Agerikoa da ikasle etorkinak dituzten ikastetxeetan ez dagoela giza baliabide nahikorik eta, horregatik, haien motibazioa eta prestakuntza funtsezkoak dira. Prestakuntzari dagokionez, etengabeko prestakuntzako programek klaustroko irakasle guztientzako ikastetxeko prestakuntza lehenetsi beharko lukete eta ikastetxearen proiektua definitzen eta haren jarraipena eta ebaluazioa egiten lagundu beharko liekete. Prestakuntza horrek kontuan hartu beharko luke antzeko arazoak dituzten ikastetxeen arteko esperientzia-trukea. Hirugarrena, baliabide materialak eta ekonomikoak dira. Oro har, baliabideen hornidura arrazionalizatu behar da, ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren arabera. Irakasleei material didaktiko egokia ematea eta ikasgelan erabiltzeko prestakuntza ematea beharrezkoa da. Eta, azkenekoa, laugarrena, eskola antolakuntza da. Haur bakoitzaren integrazioa errazteko harrera prozesua zaindu behar da, talde batean edo bestean sartzeko gaitasunak behar bezala ebaluatu behar dira eta hezkuntza-prozesua neurri malgutzeko era guztietako neurriak hartu behar dira. Ikastetxearen garapen integratua errazteko, ordutegi malguak eta programaziorako eta eztabaidarako behar diren denborak ahalbidetuko dituen klaustroa antolatzea oso garrantzitsua da.

Bosgarrena, hezkuntza komunitate osoa eskola antolamenduan sartzea da. Honen barruan hiru puntu garrantzitsu daude. Lehenengoa, gurasoei beharrezko informazioa eta prestakuntza ematea izango litzateke, haien interesetan oinarrituta, ikastetxeetan eta hezkuntza-komunitate osoan duten parte hartzea hobetzeko. Bigarren puntua, ikastetxeei familiekin lan egiteko bitartekariak eskaintzea da, udaletako gizarte zerbitzuen arloekin lankidetzan. Eta, hirugarrena guraso elkarteek ikastetxeetan benetan parte har dezaten sustatzea da. GKEek (gobernuz kanpoko erakundeek) eta elkarteek ikastetxeko jardueretan parte har dezaten erraztea, eskolaz kanpoko beharrak edo premia osagarriak aztertuz.

Amaitzeko, seigarren baldintza, helduen prestakuntza ekintza positibotzat hartzea da, integrazioa erraztuko duena, errealitatea ulertzeko tresnak ematen dituen heinean

(baita hezkuntzako ere). Helduen hezkuntza ikastetxeetan txertatzea, haien errealitatea ulertu dezaten eta honetan jardun ahal izateko.

### *2.1.2. Ikasle immigranteen inklusioa hezkuntza arloan*

UNESCOren definizioaren arabera, inklusioa ikasle guztien premien aniztasuna identifikatzeko eta erantzuteko prozesu gisa ikusten da, ikaskuntzan, kulturetan eta komunitateetan parte-hartze handiagoa izatearen bidez eta hezkuntzan bazterketa murriztuz. Haur bakoitzak ikasteko ezaugarri, interes, gaitasun eta behar desberdinak dituela dioen printzipioan oinarritzen da eta eskolako eta eskolaz kanpoko testuinguru pedagogikoetan hezkuntza-premia guztiei erantzun egokiak emateaz arduratzen da (UNESCO, d.g).

Inolako bazterketarik gabeko aniztasunarekiko bizikidetzari esker, ikasleek plurala eta askotarikoa den gizartearen onurarako balio eta jarrerak barneratuko dituzte. Horrela, herritar trebeak eta solidarioak sortuko dira, betiere desberdintasunak errespetatuz. "Inklusioa, inklusioa baino gehiago, ikasle guztiei egiten die erreferentzia. Inklusioak begirada aldatzea eskatzen du, non aldea normaltasunez ikusten den, ez ohiz kanpoko egitate gisa " (Essomba, 2006, 92. or.).

Ikasgela inklusiboetan ikasle guztiak barne sentitzen dira, izan ere, ikasgela barruan edukiak eta balioak ikasteko behar duten guztia jasotzen dute. Ikasleek jaso ez ezik ekarpenak ere egin ditzaketela hautematen eta egiaztatzen dute. Hauek dira gela inklusiboetan erabiltzen diren hezkuntza-tresna batzuk: ikaskuntza kooperatiboa eta jolasaren bidez ikastea. Osagai ludikoak dira eta ikasleen irakaskuntza ikaskuntza prozesuan konfiantza, sormen eta askatasun-espazio bat sortzen laguntzen dute.

Ainscowek berak, 2004an, lau elementu nabarmentzen ditu inklusioaren definizioa garatzeko eta ulertzen laguntzeko. Lehenengo elementua inklusioa prozesu bat dela da. Bigarrena, inklusioak ikasleen presentzia, parte-hartzea eta arrakasta bilatzen duela da. Hirugarrena oztopoak identifikatu eta ezabatu behar dituela da eta azkenekoa, laugarrena, arreta berezia jartzen duela eskola-bazterketa edo porrota jasateko arriskuan egon daitezkeen ikasle taldeetan da. Laburbilduz, inklusioak inplikatzeko du subjektu bakoitzaren aintzatespen jarrera gizarte egituraren, identitate-espektroan edo kultura-kidetasunean, duen lekua edozein dela ere (Ainscow, 2004).

El concepto de educación inclusiva es más amplio que el de integración y parte de un supuesto distinto, porque está relacionado con la naturaleza misma de la educación regular y de la escuela común. La educación inclusiva implica que todos los niños y niñas de una determinada comunidad aprendan juntos

independientemente de sus condiciones personales, sociales o culturales, incluidos aquellos que presentan una discapacidad. Se trata de un modelo de escuela en la que no existen “requisitos de entrada” ni mecanismos de selección o discriminación de ningún tipo, para hacer realmente efectivos los derechos a la educación, a la igualdad de oportunidades y a la participación. (UNICEF, UNESCO eta Fundación Hineni, 2000, 39.or.)

Hezkuntza arloan, integrazioaren eta inklusioaren arteko diferentziak anitzak dira eta Gerardo Echeitaren arabera (2006) hauek dira desberdintasun garrantzitsuenak. Lehenik eta behin, ikuspegi integratzailean ikasleen diagnostikoak egiten dira kategorizatze eta aldiz, ikuspegi inklusiboan ikasleen ezaugarriak identifikatzen dira ondoren behar dituzten laguntzak definitzeko. Ikuspegi integratzaileak, ikaslearengan jartzen du arreta eta kontrari, ikuspegi inklusiboak pertsona ardatz duen plangintza sortzen du. Integrazioan, programa berezia egiten da definitutako ikaslearentzat eta gela inklusibo batean, estrategiak errazteko programa berezi bat egiten da, ikasle, irakasle, familia eta ikastetxearentzat. Integrazioak curriculum egokitzea proposatzen du, ikasle berezien desberdintasunak gainditzeko neurri gisa eta inklusioak aldiz, curriculum inklusiboa proposatzen du, ikasle guztientzat komuna eta inplizituki txertatuko dira egokitzapen horiek.

Inklusioak erabateko eta baldintzarik gabeko gizarteratzea bermatzen du eta sistemarekin haustea eskatzen du eta integrazioak aldiz, gizarteratze partziala eta baldintzatua eta emakidak eskatzen dizkio sistemari. Ikuspegi inklusiboak eraldaketa sakonak eskatzen ditu eta integratzaileak kontrari, gainazaleko eraldaketekin konformatzen da. Inklusioak ez ditu mugak mozorrotu nahi, errealak direlako eta integrazioak gizarteratzeko aukerak areagotzeko, mugak mozorrotzeko joera du. Lehenengo eranskinean integrazioa eta inklusioaren arteko desberdintasunak biltzen dituen taula dago (ikus 1. eranskina).

## **2.2. *Irakaslearen papera ikasgela kulturantz eta inklusibo batean***

Ikastetxeek kulturartekotasuneranzko hezkuntzaren aldaketari buruzko aurretik aipatutako alderdi horiek guztiak gauzatu behar dituzte, baina ez luke ezertarako balioko bertan dauden irakasleak konbentziturik ez badaude edo aldaketa hori benetan beharrezkoa dela uste ez badute. Haiek dira, azken finean, beren ikasleekin harreman zuzena dutenak eta desberdintasunetarantz balio positiboak transmititzeko boterea eta erantzukizuna dutenak. Beharrezkoa da sinetsita egotea aniztasuna abantaila bat dela eta ikasteko baliabide gisa erabil dezaketela.

Irakasleak uste ez badu edo erabat konbentziturik ez badago kultura anitzeko ikasgela batean hezkuntza inklusibo horrek duen garrantziaz, ez du asko balioko; izan ere, azken finean, irakaslea da bere ikasgelan bizikidetzaren giro ona sortzeko eragilerik garrantzitsuena bera delako ikasleekin harreman zuzena duena. Essombaren arabera, “aldaketara eta hobekuntzara bideratutako praktika pedagogikoen eraldaketa, azken batean, irakasleak ikaskuntza-prozesua garatzeko ikasleekin eta haien artean ematen duen interakzioaren mende dago” (Essomba, 2006, 14.or.).

Ikasgelan elkarbizitza ona eta lan kooperatiboak sustatzeaz gain, garrantzitsua da irakasleak bere ikasleengan kultura guztiekiko tolerantziaren balioa azpimarratzea, ikuspegi anitza emanaz (Martín eta Margalef, 2000). Holzschuherrek (2012) egindako ekarpenak ildo beretik doaz eta gaineratzen du garrantzitsua dela irakasleek beren ikasgelan dauden kulturak hobeto ezagutzea eta hari etekina ateratzea, estrategia egokiak egokituz, hala nola kulturen eta etnien ordezkariak zabala sartuz edo kultura desberdinetako pertsonak egindako ekarpenak adieraziz.

Bestalde, irakasleak ikasleentzat eredu handiak direla ez da ahaztu behar eta maisu edo maistra batek bere gelan elkarriketa eta hausnarketa sustatu nahi badu, horrekin kontsekuentea den lehena izan behar du. Horrela, figura autoritarioa alde batera utzi eta ikasleei beren adierazpenak justifikatu behar dizkie (Martín eta Margalef, 2000).

Aniztasuna jarraitua denez eta egunez egun gure ikasgeletan ikusten ari garen bezala ikasleen arteko aldeak gero eta handiagoak direnez, irakasleek pixkanaka onartu behar dute aniztasun hori. Normalizazio-irizpideei jarraitu behar zaie eta ez espezializazio-irizpideei ikasle guztiak "askotarikoak" direlako eskola-erakundeetan garatzen diren ikaskuntza-prozesuen aurrean; izan ere, desberdinak dira gaitasunei, interesei, motibazioei, heltze-eritmoei eta estiloei dagokienez (Ministerio de Educación y Formación Profesional, 2005).

Amaitzeko, kalitatezko hezkuntza eskaintzeko ahaleginak bideratzen dituzten profesionalak gogoeta egitea premiazkoa da klase multikulturaletan lan egiteko erronka berriari aurre egin ahal izateko. Hausnarketa horretatik, egoera berri horren alderdi positiboak ateratzen lagunduko duten planteamenduak zehaztu behar dira, negatiboak minimizatuz.

### **2.3. Eskolaren papera testuinguru kulturanitz batean**

Eskola "laborategi" ona da bertan gizartean gertatzen denaren eta gertatuko denaren jarrerak, portaerak eta joerak adierazten direlako. Gaur egun, gure eskoletan gertatzen den ia guztiak zehaztuko du, neurri handi batean, haur eta gazteen etorkizuna. Horregatik, hezkuntza sistema, orain inoiz baino gehiago, funtsezko pieza ordezkazina da herrialde bateko ikasleen eta ikasle atzerritarren arteko kulturarteko bizikidetzaren egoera planteatzeko.

Eskola herrialde bateko erakunderik garrantzitsuenetako bat da. Bere helburu nagusiak ezagutzak eta, oro har, ikaskuntzak transmititzea dira. Eginkizun espezifikoagoak ere esleitzen zaizkio, hala nola ikasleei gizartean bizitzen irakastea, guztientzako aukera-berdintasuna egon dadin saiatzea, laneratzea ahalbidetzea eta gizarte jakin baten balioak transmititzea. Eskolari ikasle atzerritarren integrazioa eskatzen zaio, baina hori kontraesanean dago bizi garen gizarte motarekin; izan ere, klase sozialaren araberrako bereizketa dago (Pujol, 2008).

Kulturarteko ikuspegiak azpimarratu beharko luke ikasleen kultura-inguruneak nola baldintzatzen dituen ikasleen aurretiko ezagutzak, eskolaurreko eta eskolaz kanpoko ikaskuntzak eta eskolako ikaskuntza-prozesua bera. Helburua errealitatea hainbat ikuspegi sozial eta kulturaletik ulertzea izan beharko litzateke, ikasleei mundua hainbat irakurketatik ulertzen eta beren eta besteen kulturari buruz hausnartzen laguntzea (Pujol, 2008).

Berriro eskolara itzuliz, Carrascok (2004, 2008) ondo baieztatzen duen bezala, eskola-eremuan gertatzen da gutxiengoaren eta gehiengoaren arteko ezinbesteko harremana. Ikuspegi horretatik, eskolan beharrezkoak diren baldintzak sortu beharko lirake irakatsi eta ikasteko prozesu optimo baterako eta kultura-aniztasunaren elkarbizitzarako; izan ere, erakunde gisa sortu zen, ikasleei bizitzan zehar beren gizartean garatzeko behar dituzten gaitasunak emateko.

Eskolaren izaera heterogeneoa da eta beraz, bere izaera instituzionaletik haratago ikusi behar da, erakunde horrek ikastetxeetan duen ordezkari-tza, interpretazioa eta jardueraren kontuan hartuta. Heterogeneotasun hori konplexuagoa da ikastetxe bakoitzean bereizitasunak sortzen direnean, kontuan hartzen badugu irakasleak, askotariko ikasleak bakoitza bere gurasoekin, hezkuntza-estrategia espezifikoak eta ingurune batean kokatuta daudela. Dena batera, modu batera edo bestera, eragina du funtzionamenduan, elkarrekintzetan eta eskolatzeko-helburuen lorpen-mailan (Ogbu, 1994).

Ildo horretan, garrantzitsua da gogoratzea eskolak ikasle immigrantea gizarteratzeko eta haren garapen pertsonalerako duen zeregina eta beraz, ikastetxeak, gizartean sartzea, berdinen arteko harremana eta hezkuntza-sustapena erraztu egin behar du eta ez bakarrik hizkuntzaren ezagutza bermatu (Guerrero, 2013). Ikasle immigranteak hezkuntza-geletan sartzea gero eta garrantzitsuagoa da, jatorri desberdinetako pertsonak bizi diren herrialde multikultural batean bizi garelako. Horregatik, eskolak kalitatezko irakaskuntza bermatu behar du eta, horretarako, ikasle bakoitzaren behar espezifikoak erantzun behar die.

Ikastetxeei eta irakasle-taldeei dagokie *Aniztasunari Arreta Emateko Plana eta Harrena Plana* edukitzearen garrantziaz jabetzea. Berezkoa, ikastetxeko hezkuntza-ekintzaren urteko plangintza gidatuko duena eta hortik abiatuta ikasle guztien premietara egokitutako erantzunak emango dituen, bereziki hezkuntza-premia espezifikoak dituztenentzat, kalitateko hezkuntzarako eskubide indibiduala ziurtatzeko, Kalitatearen Legeak eskatzen duen bezala (Ministerio de Educación y Formación Profesional, 2005).

Komunitateak, oro har, gizarte-komunikabideek eta familiak, eskolarekin batera, bere gain hartu behar dituzte erakunde hezitzaile gisa dituzten erantzukizunak, elkarrekiko harreman estuan bete behar dituzte komunikazio-zubiak ezarriz (Rosales, 2016). Eta beraz, eskola-adineko etorkinen hezkuntza arreta arautzen duten arauak 1978ko Espainiako Konstituzioan eta 2006ko Hezkuntzako Lege Organikoan ezarritako ildo orokorretatik ondorioztatzen dira. Lege horren bidez, ikasleen aniztasunari arreta ematea oinarrizko printzipio gisa zehazten da, inolako bazterketarik gabeko hezkuntza-premiei helduz eta kalitatezko hezkuntza sistema lortuz. Gainera, LOEk ezartzen du administrazio publikoek Espainiako Hezkuntza Sistemari berandu sartzeko diren ikasleak hezkuntza sistemari sar daitezkeen lagundu behar dutela, eta eskolatze hori ikasleen inguruabarrak, ezagutzak, adina, historia akademikoa eta abar kontuan hartuta egin behar dela, haien ezaugarrietara hoberen egokitzen den ikastaroan sartu ahal izateko.

#### **2.4. Nafarroako Hezkuntza Sistema**

Kapitulu honetan, ikasle atzerritarrek Nafarroako Hezkuntza Sistemari buruzko presentziari buruzko atzera begirako ikuspegi bat eskaintzen da, deskribapen eta irudiekin batera. Lehenik eta behin, hizkuntza ereduak zeintzuk diren aipatuko dira eta ondoren, Nafarroako ikasle immigranteentzako harrera protokoloa nola kudeatzen den azalduko da.

### 2.4.1. Nafarroako hezkuntza ereduak


Espainiako eskolatzea 16 urtera arte derrigorrezkoa da. Adin horretatik aurrera, ikasleak erabakiko du derrigorrezko irakaskuntzaren ostean jarraitu nahi duen edo lan-munduan sartu nahi duen. Hizkuntzaren aldetik, Nafarroan, euskararen irakaskuntza euskararen legeak zehazten dituen eremu geografiko eta hizkuntza-ereduen arabera antolatuta dago.

Hizkuntza ereduak lau dira; G eredu: irakaskuntza gaztelaniaz; A eredu: gaztelaniazko irakaskuntza, euskara irakasgaiarekin; B eredu: irakasgaiak euskaraz eta gaztelaniaz ematen dira; D eredu: euskarazko irakaskuntza, Espainiako hizkuntza eta literatura irakasgaiarekin.

Bestalde, Nafarroa hiru eremu desberdinetan banatuta dago. Eremu euskaldunean, A, B eta D ereduak erabil ditzake ikasleak, eremu mistoan, ikasleak A, B, D eta G ereduak aukera ditzake eta azkenik, eremu ez-euskaldunean, A eta G ereduak erabil ditzake.

Hurrengo irudian Nafarroako eremuak agertzen dira. Berde kolorea eremu euskalduna da, hori kolorea eremu mistoa eta gris kolorea, eremu ez euskalduna.

#### 1. Mapa. Nafarroako eremu euskaldun, misto eta ez euskaldunaren mapa (2017)



Iturria: Mapa Owje

Ikaslea ikastetxe batean inskribatzerakoan, aukeratutako hizkuntza ereduak adierazi behar du eskabide orrian eta hizkuntza-ereduaren aukeraketa horrek etapa osoa iraungo du. Hala ere, eredu-aldaketa etapa amaitu aurretik eska daiteke eta ezarritako prozeduraren arabera onartu edo baztertuko da. Eremu euskaldunean ikasle guztiek euskara ikasgaiak ikasten dute. Salbuespen bezala, ohiko bizilekua ez dutela frogatzen



duten ikasleek irakasgai horretatik salbuesteko eska dezakete (Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua, 2007).

#### *2.4.2. Nafarroako ikasle immigranteentzako harrera protokoloa*

2004. urtean Nafarroako ikasle immigranteentzako harrera protokoloa idatzi zen eta bederatzi puntu biltzen ditu. Lehenengoa, hezkuntza komunitatea kulturarteko hezkuntza batean sentsibilizatzea da. Harrera programa batek hezkuntza-komunitate osoari eragiten dio eta ez soilik sartzan diren ikasleei. Horregatik, beharrezkoa da kulturarteko gaitasunak sustatzea hezkuntza-zereginen zuzenean edo zeharka esku hartzen duten eragile guztiekin, gure eta besteen jarrera baldintzatzen duten estereotipoak eta aurreiritziak baztertzeko. Lan hori ikasleekin, gurasoekin eta irakasleekin burutuko da. Ikasleek, tutoretzen eta curriculumeko arlo guztien bidez, trebetasun eta gaitasun sozialak eta berdinen arteko gatazkak konpontzen laguntzen duten jardueren bidez sustatuko dute. Gurasoek, ikastetxeak sustatutako berariazko prestakuntza-programen bidez, immigrazioaren eta hezkuntza komunitatean sartzan diren pertsonen ikuspegi positiboa izateko. Eta, amaitzeko, irakasleek, prestakuntza-jarduera espezifikotik parte hartuz sustatuko dute (ikastaroak, lantaldeak eta abar), kulturarteko hezkuntza proiektuak eginez eta ikasle guztien integrazioa erraztuko duten hezkuntza-arretako ekimenak bultzatuz.

Bigarren puntuan, familiari ikastetxean harrera egiten zaio eta lau urrats ezberdinetan banatuta dago; harrera, eskolak emandako informazioa, eskatutako dokumentazioa eta familien tutoretza. Harrerari dagokionez, ikastetxean eta beste gizarte batean sartzan diren ikasleek eta familiek hitz egiten dugunean, ikaslea irakasleekin lehen harremana izateari garrantzia ematea komeni da. Horren bidez, ikasleak aurre egin behar dion egoera berria eta eskola-ingurunearekiko eta bere prozesuarekiko duen jarrera eta itxaropenak bizitzeko modua baldintzatuko da.

Eskolak emandako informazioaren arabera, zuzendaritza taldeko kideren batek edo hark izendatutako pertsonaren batek familiei hurrengo informazioa emango die; ikastetxearen hezkuntza proiektua eta ikastetxeko arauak, eskola-egutegia, ikastetxearen ordutegi orokorra, ikaslearen ordutegia, bertaratze-hutsegiteen justifikazioa, ikasleak sartzeko eta irteteko lekuak, ikastetxeko instalazioak, beharrezko eskola-materiala, eskolako jantokiaren zerbitzua eta jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak.

Eskatutako dokumentazioa zuzendaritza taldeko kide batek jaso behar du eta familiari matrikula formalizatzeko aurkeztu behar dituzten dokumentuen berri emango die. Hauek dira dokumentuak: udalerrian errolatuta egotearen ziurtagiria, familia

liburuaren fotokopia, gizarte segurantzaren txartelaren fotokopia, txertaketa-txartelaren fotokopia edo ziurtagiri baliokideren bat, gidabaimenaren tamainako argazkiak eta espediente akademikoa. Amaitzeko, familiaren tutoretzari dagokionez, komenigarria izango litzateke eskolak (IGE<sup>1</sup>, Zuzendaritza Taldea) "familia laguntzaileen" laguntza sustatzea, eskolara iristen diren familiekin borondatezko tutoretza lana egin dezaten. Funtsean, eskolan eta herrian integratzen laguntzeko, hasierako egunetan laguntza lan bat eginez.

Harrera protokoloaren hirugarren puntua, hasierako ebaluazioa eta esleipena da. Hasierako ebaluazio hori tutoreek edo orientatzaileak egingo dute. Balorazio horren hasierako emaitza oso azkarra izaten denez, ikaslearen adina eta hura sar daitekeen erreferentziazko taldearen ezaugarriak kontuan hartuta, ikasgelako talde bati atxikiko zaio behin-behinean. Ikastetxe bakoitzak zehaztuko ditu hasierako ebaluazioaren irizpideak, erabili beharreko prozedurak, arduradunak, iraupena eta gauzatu beharreko baldintzak. Nolanahi ere, honako funtsezko alderdi hauek hartu behar dira kontuan: ikaslearen hasierako egoera emozionala ulertzea, dakiena erakutsi dezan ahalbidetzea, hasierako ebaluazioa ez dezala gainditu beharreko azterketa edo proba gisa bizi baizik eta ebaluazioa malgutasunez kontuan hartzea eta amaitzeko, ahal den guztietan talde-ebaluazioa egitea (koebaluazioa).

Laugarren puntuan, ikasleari harrera gelan egiten zaio eta horretarako lehendabizi ikaslea aurkezteko eta elkar ezagutzeko jarduerak egiten dira eta ondoren, ikasle-tutoreak esleitzen dira. Hasieran, tutoreak klaseko taldeari aurkeztuko dio, bai eta gainerako irakasleei ere eta izena, jatorrizko herrialdea eta egokitzat jotzen dituen beste datu interesgarri batzuk adieraziko ditu. Interesgarria izan daiteke datu horiekin batera maparen bat izatea (Haur eta Lehen Hezkuntzako etapetan). Ikasleek elkar ezagutzea errazteko, jolasetara, talde jardueretara edo ikasgelan harrera ona egitea ahalbidetzen duten beste estrategia batzuetara jo daiteke.

Esperientzia oso positiboak bizi dira ikasle etorri berri baten tutoretzan beste ikaskide baten aldetik. Talde-gelako irakasle tutoreak lankide baten edo biren laguntza eskatzen du, orientatzeko eta laguntzeko, batez ere lehenengo asteetan eta are gehiago hizkuntza ezagutzen ez badu. Ikasle hauek bere ondoan jarriko dira ikasgelan eta jangelan eta jolaslekura lagunduko diote beti babestuta sentitu dadin. Bizikidetzara arau oinarrikoenak eta gelako funtzionamendu arauak azalduko dizkiote eta aldi berean, taldekide guztien arteko lankidetzara eta taldea egokitzeko prozesuan inplikatzeari saiatuko dira. Komeni da

---

<sup>1</sup> IGE: Ikasleen guraso elkarte

ikasle berriaren trebetasun pertsonalak nabarmentzea, bere autoestimua eta ikaskideen begirunea hobetzeko, talde txikietan lan eginez eta tutoretzako ekintza planaren barruko jarduerak eginez.

Bosgarren puntua curriculumerako sarbidea izango litzateke. Gaztelania ez dakiten ikasle immigranteak sartzan direnean, eskolak bermatu behar du hizkuntza modu intentsiboan ikastea, bai komunikatzeko, bai curriculumean sartzeko. Enborreko arloetan zer garapen maila duten jakiteko, hasierako ebaluazioa maila edo ziklo bakoitzeko irizpide eta probetara egokituko da, ikaslearen curriculum-gaitasuna ezagutzeko.

Seigarren puntuak antolaketa eta funtzionamenduari buruz hitz egiten du. Hasierako ebaluazioa amaitu ondoren eta ikasleen curriculum-gaitasunak ezagutu eta gero, neurri egokienak hartuko dira arreta indibidualizatuagoa jaso ahal izateko. Hezkuntza-premia bati erantzuteko jarduera orok hartzailearen egoera zehatzetik abiatu behar du, banaka edo taldeka egiten dena alde batera utzita. Ikastetxearen baliabideen eta ikasleen beharren arabera izango da arlo jakin batean aurreikusitako gutxieneko helburuak lortzeko behar den laguntza edo errefortzu motari buruzko erabaki bat edo bestea hartzea edo, adina dela eta, dagozkion teknikak eta ikaskuntzak eskuratzea. Honen barruan taldekatzea, curriculumaren egokitzapenak, koordinazio neurriak, eskolaz kanpoko jarduerak eta beste erakundeekin lankidetzatza daude.

Zazpigarrenean, kulturarteko gaitasunak garatzea bilatzen da. Ikasle guztiak pluraltasuna ezaugarri duen gizarte bateko herritar aktibotzat hartzen badira, eskolak kulturarteko komunikazio-gaitasunei buruzko prestakuntza jaso beharko du. Horretarako, tutoretza-jardueratik koordinatutako hezkuntza proposamen bat egin beharko da, irakasle guztiak inplikatu dituen eta eskola-jarduera guztietan islatuko dena. Hona hemen proposamen horren bost adierazpen: lehenengoa, ikasgelan informazioa eta baliabide eguneratuak erabiltzea eta landutako gai bakoitzari buruzko ikuspegiak islatzea. Bigarrena, giza esperientziaren eta hura adierazteko moduen aniztasuna islatzen eta baloratzen duten edukietara jotzea eta balorazioaren erreferente komun gisa pertsonaren duintasuna eta eskubideak nabarmentzea. Hirugarrena, eskolaz kanpoko komunitatearekin edo ingurunearekin harremanak izatea eskatzen duten ekimenak abian jartzea. Laugarrena, esperientzien edo ikuspuntuen truke esanguratsuari eta eztabaida ireki eta eraikitzaileari lagunduko dion klase giroa sustatzea. Eta bosgarrena, ikasleek erabakietan parte hartu dezaten bultzatzea.

Zortzigarren puntua estrategia metodologikoei dagokio eta honetan, bi puntu garrantzitsu nabarmentzen dira. Lehenengoa, jardunbide pedagogiko egokien

proposamenak dira. Ikasle immigranteak sartzearekin batera, beharrezkoa da herritar guztiek jarrerak aldatzea, bizikidetza ez-diskriminatzailea sustatzeko eta kultura-aniztasuna pertsona guztien duintasunarekiko errespetuan oinarritutako berdintasun-mailan aitortzeko. Helburu horrekin, komenigarria izango da gure ikastetxeetan pertsonen arteko eta talde laneko trebetasunak garatzen dituzten ikaskuntza estrategien erabilera sustatzea, hala nola: elkarrizketa eraikitzailea, entzute aktiboa eta negoziazioa, aniztasunaren balorazioa eta erantzukizun pertsonala, konpromisoarekin eta elkartasunezko harremanekin batera.

Bigarrena, formakuntza da. Prestakuntza, irakasleek eta ikastetxeek ikasle immigranteekin egiten duten hezkuntza-lana bultzatzea dezaketen ardatzetako bat da. Hala ere, prestakuntza komenigarria da hezkuntza-komunitatea osatzen duten beste pertsona batzuen kasuan ere: gurasoak, ikasle boluntarioak eta abar. Horretarako, garrantzitsua da zuzendaritza-taldeek eta IGEek ekimenak sustatzea, hezkuntza-komunitateko kideen arteko ezagutza bultzatzeko, ikastetxean bertan edo inguruan sortzen diren topaketa eta lan taldeen bidez, bai eta kulturarteko hezkuntzari, bizikidetzari eta abarri buruzko ikastaroak, esperientziak eta jardunbide egokiak ere. Irakasleei Laguntzeko Zentroek ikastetxeetako irakasleentzako prestakuntza-jarduerak sustatzen dituzte, hala nola; hezkuntza-berrikuntza lantaldeak, ikastetxeen artean hezkuntza-esperientzia trukaketak, materialak eta dokumentuak zabaltzea eta ikasle etorkinei eta behartsuei buruzko aholkularitza.

Azkeneko puntua, bederatzigarrena, harrera programaren autoebaluazioari dagokio. Behin harrera programa eginda, komeni da aldian-aldian praktikan jartzea eta horren ebaluazioa egitea. KPBak (koordinazio pedagogikorako batzordeak) ebaluazio hori bultzatuko du eta irakasle guztiengana iritsiko da, bai zikloko koordinatzaileen bidez, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako etapetan, bai Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako departamentu buruen bidez edo ikastetxe bakoitzak zehaztutako beste formula batzuen bidez.

### 3. Ikasle etorkinak Nafarroako eta Iruñeko Hezkuntza Sistematan


Kapitulu honetan Espainiako, zein Nafarroako, Iruñeko eta Txantreako biztanleriaren osoaren datuak eta atzerrian jaiotakoak kopurua eta hauen bilakaera, jatorria, adina eta sexua azalduko da. Baita, Nafarroako Hezkuntza Sistemaren datuak ere emango dira.

Lehenik eta behin immigrazio eta atzerritar hitzen definizioa azalduko da. Immigrazioa bertakoak ez diren pertsonak herrialde batera egiten duten migrazio-mugimendua da, herrialde horretan bizimodua hobetzeko asmoarekin, arrazoi ekonomiko eta politikoengatik maiz. Atzerritarra bertako nazionalitatea ez duen herritarren kondizioa da. Atzerritarrak egoiliarak zein ez egoiliarak izan daitezke. Atzerritarraren kondizioa ez da behin betikoa, herritar baten nazionalitatea aldatu egin daitekeelako bizitzan zehar (Euskaltzaindiako Hiztegia, d.g). Beraz, datuak aurkezteko atzerritar hitza erabiliko da.

INETik ateratako datuen arabera (2021), Espainian 47.332.614 pertsona bizi dira eta horietatik 5.434.153 atzerrian jaiotakoak dira. Beraz, Espainiako biztanleria osoaren %11,48a atzerrian jaio da. Nafarroan, aldiz, 661.197 biztanle daude eta horietatik 70.666 atzerrian jaio dira, hau da %10,69a. Sexuaren arabera sailkapena hurrengoa da: Nafarroan 327.226 gizon bizi dira eta 333.971 emakume. Horietatik 35.649 gizon (%10,89a) eta 35.017 emakume (%10,49a) atzerrian jaio dira.

Hurrengo grafikoan ikusi dezakegun moduan, Nafarroan eta Espainian erroldatutako atzerrian jaiotakoak proportzioaren bilakaera agertzen da (1998tik 2021ra). Argi ikusten da urteak pasa ahala atzerrian jaiotakoak proportzioa handitu dela (Nafarroan %14a eta Espainian %12a) baina Espainia eta Nafarroaren arteko diferentzia txikia izan da.


#### 1. Grafikoa. Nafarroan eta Espainian erroldatutako atzerrian jaiotakoak proportzioaren bilakaera 1998tik 2021ra



Iturria: Egileak egina INEko datuak oinarri hartuta

Nafarroan bizi diren atzerrian jaiotakoen jatorriari dagokionez, %34,37a Europatik dator, %30,50 Amerikatik, %30,31 Afrikatik, %4,61 Asiatik, %0,05 Ozeanatik eta %0,15 herrigabeak dira. 2.grafiko honetan datu horiek islatzen dira eta ikusi daitekeen moduan, Nafarrora iristen diren atzerrian jaiotako gehienak Europa, Amerika eta Afrikatik etortzen dira.


**2. Grafikoa.** Nafarroan bizi diren atzerrian jaiotakoen jatorria balore absolutuetan eta ehunekoetan (2021)



Iturria: Egileak egina INEko datuak oinarri hartuta

Adinari dagokionez, 3.grafikoan ikusi dezakegun moduan, Nafarroan dauden atzerrian jaiotakoen %18a 0 eta 15 urte bitartekoa da, %78,6a 16 eta 64 urte bitartekoa eta 65 urte gorako atzerrian jaiotakoen kopurua %3,4a betetzen du. Argi ikusten den moduan, 16-64 urte bitarteko adinak Nafarroan bizi diren atzerrian jaiotakoen ehuneko handiena betetzen dute.

### 3. Grafikoa. Atzerrian jaiotakoen kopurua ehunekoetan adin-tarte handien arabera Nafarroan (2021)



Iturria: Egileak egina Nafarroako Estatistika Erakundeko datuak oinarri hartuta

Gradu amaierako lan honetan Iruñean zein Iruñeko Txantrea auzoan bizi eta atzerrian jaiotakoen kopurua azalduko da. Iruñeko biztanleria osoa 207.386 pertsonakoa da eta horietatik 98.127 gizonetzkoak dira eta 109.259 aldiz, emakumezkoak. Iruñeko biztanleriaren % 12,93a atzerritarrean jaio da (26.8015 pertsona) eta horietatik 13.249 gizonetzkoak dira eta 13.566 emakumezkoak (ikus 2. eta 3. eranskinak).

Txantrea auzoan 19.624 biztanle daude. Horietatik 9.372 gizonetzkoak dira eta 10.069 emakumezkoak. Biztanleria osoaren %10,44a atzerrian jaiotako pertsonak dira (2.050 biztanle), horietatik 1.008 gizonetzkoak dira eta 1.042 emakumezkoak (ikus 4. eta 5. eranskinak).

Nafarroan hizkuntza-eredua aukeratzeari dagokionez, 2014/2015 ikasturte horretan atzerrian jaiotako ikasleen %73k gaztelania eskusiboko irakaskuntza aukeratu zuen G ereduaren bidez; %6,6k A ereduaren bidez (euskarazko ikasgaia duena); eta %18,7k eleanitz erduetan (British eta TIL, "Hizkuntzen Tratamendu Integratua" akronimoa dena eta gaztelaniaz, ingelesez eta euskaraz ematen dena) eta, azkenik, %1,6 D erduan matrikulatu zen (euskara). Nafarroako ikasle guztiekin alderatuta (Nafarroako Eskola Kontseilua, 2014), 2013/2014 ikasturtean %54,7 G erduan matrikulatuta zegoen, %23,8 D erduan, %14 A erduan eta %7,4 erdu eleaniztunetan. Beheko taulan aipatutako datuak ageri dira.

**1. Taula.** Atzerrian jaiotako ikasleen banaketa, guztira eta ehunekotan, hizkuntza-ereduen eta ikastetxearen titulartasunaren arabera. 2009/2010 eta 2014/2015 ikasturteak (2014)

Curso	Titularidad	A	%	British	%	D	%	G	%	TIL	%	Total
2009 /2010	Concertada	220	1,9%	0	0,0%	7	0,1%	2.125	18,0%	0	0,0%	2.352
	Pública	1.067	9,0%	282	2,4%	188	1,6%	7.777	65,7%	171	1,4%	9.485
	<b>TOTAL</b>	<b>1.287</b>	<b>10,9%</b>	<b>282</b>	<b>2,4%</b>	<b>195</b>	<b>1,6%</b>	<b>9.902</b>	<b>83,7%</b>	<b>171</b>	<b>1,4%</b>	<b>11.837</b>
2014 /2015	Concertada	111	1,3%	0	0,0%	19	0,2%	1.267	15,3%	0	0,0%	1.397
	Pública	439	5,3%	415	5,0%	117	1,4%	4.775	57,7%	1138	13,7%	6.884
	<b>TOTAL</b>	<b>550</b>	<b>6,6%</b>	<b>415</b>	<b>5,0%</b>	<b>130</b>	<b>1,6%</b>	<b>6.042</b>	<b>73,0%</b>	<b>1138</b>	<b>13,7%</b>	<b>8.281</b>

Iturria: Hezkuntza Aniztasunaren eta Premia Berezien Arretarako Atala (Hezkuntza Saila).

Laburbilduz, Espainian eta Nafarroan bizi diren eta atzerrian jaio diren pertsona kopurua, urteak pasa ahala nahiko handitu da baina bien arteko diferentzia konstante mantendu da. Nafarroako Hezkuntza sistemaren aldetik, argi eta garbi ikusi daiteke atzerrian jaiotako ikasle gehienak G eredia nahiago dutela.



#### 4. Helburuak eta metodologia

Elkarrizketen helburu nagusiak Txantrea auzoko bi ikastetxeetan immigrazioa eta aniztasunari dagokionez bizi den errealitatea ikertzea eta horien datuak aztertzea da eta, ondorioz, immigrazioari eta aniztasunaren kudeaketari begira Iruñerriko eta Nafarroako egoera orokorra zein den jakitea. Helburu nagusi horietatik abiatuta, beste helburu espezifikoak lortu nahi dira, hala nola, immigrazioaren aldetik D eta A-G ereduaren arteko bereizketaren arrazoiak zeintzuk diren jakitea; kultura-aniztasunaren kudeaketa ikastetxeetan zein den antzematea; ezarritako plan eta protokolo ezberdinak ezagutzea eta eskolak betetzen duen papera nolakoa den ikertu nahi dira.

Aniztasunari begira hezkuntza sistema nolakoa den eta nola funtzionatzen duen adituen iritzia eta diskurtsoa entzunda aztertu nahi da eta, beraz, beste helburu bat elkarrizketatuen motibazioari, jarrerari eta egitasmoen loturiko alderdietan sakontzea ere izan da. Nafarroan aniztasuna zer suposatzen duen ezagutu nahi da eta horretarako kasu zehatz bat ikertu da. Horrekin batera, egoera edo errealitateari aurre egiteko *Elkar Ezagutzuz* proiektua garatu da eta adituen iritziarekin kontrastatu da.

Helburuekin abiatzeko, gure testuinguruan immigrazioaren fenomenoak gaur egun zertan den jakitea beharrezkoa da eta, horretarako, Iruñeko Txantrea auzoko bi ikastetxe publikoetan azterketa kualitatiboak elkarrizketa pertsonalen bidez egin dira gaien adituak diren pertsonen artean eta hezkuntza-esparrua ondo ezagutzen duten pertsonen artean. Aipatutako metodologia kualitatiboa aukeratu da gaiaren inguruko informazio sakona lortzea helburu zelako. Prozesuan, adituei baimena eskatu zaie elkarrizketak grabatu ahal izateko eta ondoren haien hitzak transkribatu dira.

Aukeratutako bi ikastetxeak, García Galdeano eta Bernart Etxepare izan dira. Lehenengoa A-G ereduakoa da eta bigarrena, D ereduakoa. Lau elkarrizketa burutu dira guztira, hiru García Galdeano eskolan eta bat Bernart Etxeparen. Ikastetxe horiek bi arrazoi nagusiengatik aukeratu dira; lehenengoa, eredu desberdinak dituztelako eta auzo berdinean dauden bi ikastetxe direlako eta bigarrena eta garrantzitsuena, immigrazioaren aldetik izugarritzko aldea dutelako. García Galdeanon ikasleen %74a atzerritarra da eta Bernart Etxeparen aldez, %2,35a. Egia da, halaber, zehaztu beharko litzatekeela ikasle batzuk jada Espainian jaioak direla, baina atzerritartzat jotzen dituztela bai atzerrian jaioak direnak, bai atzerriko nazionalitatea duten gurasoak dituzten ikasleak, nahiz eta haiek jada belaunaldiz Espainian jaioak diren.

Elkarrizketak aurrera eramateko, bi profil planteatu dira; zuzendariak eta tutoreak. Bi horiek aukeratu dira ikastetxearen eta aniztasunaren inguruan ikuspegi global bat edukitzeko oso aproposenak direlako. Alde batetik, zuzendariak ikastetxeen datu eta

ikuspuntu orokorrak eman dituzte eta tutoreek, bestetik, haien esperientzia eta metodo indibidualei buruz hitz egin dute. García Galdeanon egin diren hiru elkarrizketetatik, bat zuzendariari egin zaio eta beste biak Lehen Hezkuntzako lehenengo eta bosgarren mailako tutoreei egin zaizkie. Bernart Etxeparen aldiz, zuzendariari bakarrik egin zaio elkarrizketa. Horri esker, pertsona talde txiki horren eskutik informazio ugari eta zehaztasun handikoa lortu da eta horietatik atera dira, hitzez hitzeko aipameneren bidez, gradu amaierako lanaren atal hau hezurmamitzen duten ideia nagusiak eta informazioa.

Hurrengo taulan adituen hitzak biltzeko orduan erabilitako kode sistema eta aldagaiak agertzen dira. Kode sistema honetan bi informazio mota erabili dira, alde batetik elkarrizketaren zenbakia eta bestetik, gidoiaren galdera. Hona hemen adibide bat; E1:15<sup>2</sup>.

## 2. Taula. Elkarrizketetan erabilitako lagina

	<b>IKASTETXEA</b>	<b>KARGUA</b>	<b>MAILA</b>
<b>E1</b>	García Galdeano	Zuzendaria	-
<b>E2</b>	García Galdeano	Tutorea	LH 1
<b>E3</b>	García Galdeano	Tutorea	LH 5
<b>E4</b>	Bernart Etxepare	Zuzendaria	-

Iturria: Egileak egina

Gidoi ezberdinak prestatu dira (ikus 6. eranskina) eta horietatik abiatuta gai ezberdinak jorratu dira. García Galdeanoko zuzendariari ikastetxea, immigrazioa, eskola-errendimendua, matrikulazioa, familia, irakasleria, baliabideak, plan estrategikoa eta aniztasunaren kudeaketa, ebaluazioa eta programei buruz galdetu zaio. Eskola berdineko bi tutoreei gela, familia, ikasleria, aniztasunaren kudeaketa, ebaluazioa eta programei buruz galdetu zaie. Amaitzeko Bernart Etxepareko zuzendaria ikastetxea, matrikulazioa, immigrazioa, familia eta kulturarteko hezkuntzari buruz aritu da. Elkarrizketatu guztiei elkarrizketaren amaieran sortu dudak proiektuari buruz galdetu zaie.

---

<sup>2</sup> E1:15 lehenengo elkarrizketaren hamabosgarren galderari dagokio.

## **5. Elkarrizketen emaitzak: Adituen pertzepzioa ikasle etorkinen integrazioan Nafarroako Hezkuntza Sistemari**

Kapitulu honetan elkarrizketen bidez adituen bisioetatik ateratako emaitzak aztertuko dira. Lehenik eta behin auzoaren eta ikastetxeen errealitatea eta ezaugarriak ezagutuko dira testuingurua zein den ondo jakiteko. Ondoren, diskurtsoen analisia egingo da eta bertan adituen hitzak jasoko dira. Amaitzeko, sortutako proiektua azalduko da eta adituen iritziekin kontrastatuko da.

### **5.1. Auzoaren eta ikastetxeen errealitatea eta ezaugarriak**

Bernart Etxepare eta García Galdeano ikastetxe publikoak, Iruñeko ipar-ekialdean dagoen Txantrea auzoan kokatzen dira, ondoan Burlata, Arrotxapea, Antsoain eta Alde Zaharra dituztelarik. Auzo hau, herriko jendeak berak sortu zuen 1950. urte inguruan, Nafarroa mailan suertatzen ari ziren etxebizitza arazoak zirela eta. Hezkuntza arloan, auzoa oso hornituta dagoela ikus daiteke, izan ere, auzo berean haurrek formazio osoa jaso dezakete. Haur eskola publiko bat dago, bi ikastetxe publiko (García Galdeano eta Bernart Etxepare) eta itunpeko beste bi, hiru institutu publiko eta beste bi itunpekoak direnak. Goi mailako zikloko beste hiru ikastetxe ere daude, baina ez dago bakar bat ere euskaraz.

Auzoaren aldetik, auzolana izan da Txantreako biztanleen proiektuak aurrera eramateko tresnarik erabiliena, elkartasunean auzoaren beharrei erantzuna ematen saiatu eta auzoari "herri" izaera ezaguna eman diona. Biztanleriari dagokionez, batez ere erdi mailako langileez osatua dago eta agureek biztanleriaren alde nahiko handia betetzen dute bertan. Biztanle gehienak Iruñean jaioak diren arren, azken urtetan etorkin dezente iritsi dira etxebizitzaren prezioak direla eta.

Bernart Etxepare 426 ikasle (horietatik 10 atzerritar) eta 42 irakaslez osatua dagoen zentroa da, Haur eta Lehen Hezkuntza kontutan hartuta. Hezkuntza proiektuaren aldetik, auzoan euskararen eta kulturaren transmisioa bultzatzen duen zerbitzu publiko bat da, berdintasunetik abiatuta, etorkizuneko gizartearen oinarri eta auzoko harremanen erreferentzia izan nahi duena. Era berean, pertsonen heziketa integrala, kritikoa eta harreman eredu egokiak eskainiz gizarteari erantzuna ematen saiatzen da, bertan ematen diren aukera ezberdintasunak ahal den neurrian orekatzeko. Ikasleen jakinmina piztu eta potentzial pertsonala zein akademikoa garatzen da, giza balio eta bizipen positiboak bultzatuz. Horretarako, ikastetxeak auzoaren ezaugarriak kontutan izanik, izaera irekia, anitza, hurbila, eleanitza eta laikoa bilatzen du.

García Galdeanon 203 ikasle (horietatik 150 atzerritar) eta 33 irakasle daude Haur eta Lehen Hezkuntza artean. Oso ikastetxe kulturantzista da, izan ere, 24 nazionalitate ezberdineko ikasleak jasotzen ditu (gehien errepikatzen diren herrialdeak Nigeria eta Maroko dira). Erabiltzen duten metodologia giroen araberako lana da eta metodologia horretan fisikoa eta estandarra baino haratago doazen espazioak eta lekuak sortzen dituzte. Giro horietan adin ezberdinetako ikasleak geletatik libre ibiltzen dira bata bestearekin harremanetan jarriz eta modu autonomo batean lan eginez. Lan egiteko modu horrek ikasle guztiak limurtu, erakarri eta integratzen ditu eta gainera, autoestimua handitzera bultzatzen ditu, akatsaren edo porrotaren beldur izan gabe. Helburua ongizate afektiboa eta emozionala da.

García Galdeano ikaskuntza komunitate bat da non gizarte eta hezkuntza eraldaketara bideratutako hezkuntza-jarduera arrakastatsuetan oinarritutako proiektua aurrera eramaten den. Ikaskuntza komunitateek ikasleen ikaskuntzan eta garapenean zuzenean edo zeharka eragiten duten pertsona guztiak inplikatzeko dituzte, irakasleak, senideak, lagunak, auzoko bizilagunak, auzo-elkarte eta erakundeetako kideak, boluntarioak eta abar.

## **5.2. Adituen ikuspegitik kultura aniztasuna Nafarroako Hezkuntza Sistemari: Txantrea auzoaren kasua**

Hurrengo lerroetan elkarrizketatuen diskurtsoak aztertuko ondoren ateratako emaitzak eta konklusioak agertuko dira.

### **5.2.1. Ikastetxeen profila eta errealitatea**

García Galdeano eta Bernart Etxepare ikastetxeetako ikasle etorkinen bolumena oso desberdina da. Lehenengoan, ikasle kopuru osoaren %74a ikasle atzerritarrek dira eta bigarrenetan aldiz, %2,3a bakarrik. Bernart Etxeparen García Galdeanon baino bi aldiz ikasle gehiago daude eta hala eta guztiz ere ikasle atzerritarren kopurua ikaragarri baxua da.

*“Tenemos actualmente 203 alumnos y alumnas, el 26% pertenece a nacionalidad española y el 74% es de origen extranjero. Tres cuartas partes de la escuela es de origen extranjero.” (E1:2<sup>3</sup>).*

*“426 ikasle daude. Hamar bat dira atzerritarrek.” (E4:2).*

---

<sup>3</sup> E1:2 adibidez, lehenengo elkarrizketaren bigarren galderari dagokio. Elkarrizketen gida 6. eranskinean dago.

Bi ikastetxeetan dauden familien profilari dagokionez, García Galdeano eskolan elkarrizketatutako irakasle guztiek uste dute ikastetxean dauden atzerriko jatorriko familiek egoera ekonomiko ezegonkorragoa bizi dutela, familia autoktonoekin konparatuta. Familia etorkinen egoera sozioekonomikoa erdi-baxukoa da eta maiz, familia kide batek egiten du lan bakarrik. Aldiz, familia autoktonoen maila sozioekonomiko erdikoa izaten da, kasuren batean altukoa.

*“La situación económica diría que es medio-baja, tirando a baja ya que, por lo general, un solo miembro de la unidad familiar es el que trabaja fuera de casa. Por lo general, la situación económica de las familias inmigrantes comparado con la de las autóctonas suele ser peor.” (E2:7).*

*“En el caso de las familias autóctonas trabajan ambos fuera de casa.” (E2:6)*

*“A nivel de centro, el 62,6% del alumnado pertenece a familias desfavorecidas y el 37,4% restante está en un nivel socioeconómico medio. Pocas serán las familias que estén en un nivel medio-alto, si es que las hay. La mayoría son familias obreras y trabajadoras.” (E1:5).*

*“Orokorrean, klase sozial mediako familiak ditugu ikastetxe honetan, langile auzoa da eta normalean gurasoak erdi eta goi mailako ikasketak dituzte. Kasuren batean beharbada baldintza sozioekonomiko altuko familia batzuk ditugu baina orokorrean, media.” (E4:23).*

García Galdeano eskolan egin diren elkarrizketetan, ikasleen eta euren familien zailtasun ekonomikoen inguruan gehien errepikatzen den adierazleetako bat da eskolaz kanpoko jardueretan eta txangoetan parte hartzeko ezintasuna. Horregatik, komunitate taldeak bezalako alternatibak bilatzen dituzte (Siñarzubi adibidez).

*“Ahora no lo hacemos porque sale muy caro y algunas familias no se pueden permitir ni pagar diez euros de autobús.” (E2:31).*

*“Aquí hay niños y niñas que por la situación socioeconómica que tienen sus familias no se pueden permitir ir a las excursiones” (E3:31).*

*“Por eso, desde el centro se buscan asociaciones que ofrezcan actividades deportivas y trabajen las tareas a nivel extraescolar de manera gratuita como puede ser Siñarzubi.” (E3:8).*

Aniztasunari begira ikastetxeen errealitatea ikusita, argi dago errealitate ezberdinak bizi dituztela. Adituen hitzetan ikusi daitekeen moduan, ikasle etorkinen kopurua oso desberdina da ikastetxe batean eta bestean. Egoera sozioekonomikoari dagokionez, García Galdeanoko familien egoera erdi-baxukoa da eta Bernart Etxeparen aldiz, erdikoa. Honek erronkak suposatzen ditu eta beraz, ikastetxe bakoitzak bere errealitateari egokitzen ditu.

### 5.2.2. Matrikulazioa

Matrikulazioei buruz hitz egiten, hezkuntza sisteman matrikulazioak eta ikasle etorkinen egoera nolakoa den aztertzen denean, elkarrizketatuek bi gai nagusi aipatu dituzte. Batetik, etorkinak ikastetxe jakin batzuetan eta eredu jakin batzuetan metatzen direla eta horrek hainbat ondorio sortzen dituela eta bestetik, iritsi berriak diren ikasleen kopuru handi bat epez kanpo matrikulatzen direla (matrikulazioak normalean otsailean egiten dira eta epe horretatik kanpo egiten dituzte).

*“Hemos estado haciendo cálculos y calculamos que normalmente suelen ser entre 20 y 50 alumnos y alumnas los y las que se matriculan una vez iniciado el curso.” (E1:9).*

Aurretik aipatu bezala, epez kanpo matrikulatzen diren ikasleen kopurua nahiko handia da eta horren ondorioz, prozesu horretan laguntzeko zenbait jarraibide aurrera eramaten dira. Epez kanpo ikasle bat eskolan matrikulatzen denean hasierako ebaluazio bat egiten zaio, ikaslearen maila zein den ikusi ahal izateko. Ikasleak ez badu ikastetxean nagusitzen den hizkuntza menperatzen, froga bere hizkuntzara moldatzen da. Hamar eta hamabi urte bitarte izanez gero, automatikoki kurtso bat beherago matrikulatzen zaio.

*“Tratamos de hacerlas y adecuarlas a un idioma donde se defiendan más y si el nivel es quinto o sexto de primaria sin idioma, automáticamente se le matricula un curso inferior.” (E1:12).*

*“Ikasle txikiena zuzenean gelan sartu dugu baina, handienari, erdaraz proba batzuk egiten ari dizkiogu ze mailatan dagoen ikusteko.” (E4:7).*

Elkarrizketatuen arabera, auzoko etorkinak eskola jakin batean eta eredu jakin batean pilatzen dira, A-G ereduan hain zuzen ere. Txantrea auzoan, García Galdeano eta Bernart Etxepare ikastetxe publikoak auzoan bizi diren ikasle kopuru handiena metatzen dute baina ikasle etorkin gehienak A-G ereduan biltzen dira. Joera horretan eragina duten hainbat faktore daude; besteak beste, hizkuntza, A-G ereduan plaza huts gehiago daudela eta etorkinek gaztelania lehenesten dutela euskararen aurretik, dela jatorri geografikoagatik dela kolektibo horren mugikortasun handiagatik.

*“También porque normalmente es un centro que tiene vacantes, es decir, que no está al completo y con lo cual, cuando hay vacantes y el resto de los centros de la zona tienen sus grupos conformados y están completos, vienen a nuestro centro.” (E1:14).*

*“Está claro que no van al D por el euskera. Ese euskera no es una asignatura, es inmersión total y como es una lengua que no habla todo el mundo en Navarra, las familias ponen una barrera.” (E2:22).*

*“El idioma siempre frena un poco” (E3:23).*

*“Creo que muchos y muchas eligen este centro por el idioma para no tener que enfrentarse a centros educativos donde el idioma sea una barrera.” (E1:14).*

*“Orduan, ez da intenzionala baina ez dago intentzio edo ahalegin berezirik erakartzeko. Gure partetik ez dira baztertuak izaten, baina ez dugu inolako ahaleginik egiten. Auzoan dagoen García Galdeano ikastetxeak etorkin pila ditu. Hori gertatzen da alde batetik, haientzat erakargarriagoa suertatzen den beste hezkuntza mota bat aurrera eramaten dutelako eta bestetik, euskara zailtasun bezala ikusten dutelako.” (E4:5).*

*“Egia da ere, etorkin batzuk oso nomadak direla eta mugikortasun handia dutela eta ondorioz, gu ez gara oso aukera ona haientzat”. (E4:4).*

Elkarrizketatuen ustetan aipatutako faktore horien gainera, beste bat dago eta Nafarroako Gobernuak egiten duen hezkuntza politika da. Haien ustetan, ez da kasualitatea hainbeste ikasle atzerritar ikastetxe batean metatua egotea eta Nafarroako Gobernuak egiten duen administrazio kudeaketa kaxkarraren erantzukizuna da.


*“También creo que es resultado de una política educativa. García Galdeano se ha quedado como uno de los centros de modelo A-G de Pamplona y la oferta educativa que rodea la zona es complicada para nosotros.” (E1:14).*

*“También es verdad que no es casualidad que en este colegio haya tanto alumnado inmigrante. Es un problema de gestión.” (E3:22).*

*“Esto es un problema de administración. Se están creando guetos en las escuelas y cuantos más modelos, más guetos, es así”. (E2:22).*

Adituen arabera, matrikulazio prozesuan eragin handiena duten faktoreak hurrengoak dira: hizkuntza, plaza hutsak eta politika eskasak. Hizkuntza aipatzen dutenean ikaste etorkinen ama hizkuntzari erreferentzia egiten diote. Ikastetxean erabiltzen den hizkuntza ez den beste bat hitz egiten dutenean, ikastetxea aukeratzeko faktore batean bilakatzen da. Plaza hutsei dagokienez, García Galdeano ikastetxean gertatzen den bezala, gehieneko ikasle kopurua ez da inoiz betetzen eta beraz, aukeratzeko orduan beste faktore garrantzitsu batean bilakatzen da. Amaitzeko, politika eskasak aipatzen dituztenean, Nafarroako Gobernuak egiten duen kudeaketari egiten diote erreferentzia. Elkarrizketatuen ustetan Nafarroako Gobernuak horrelako ikastetxetan ikasle immigranteak metatu nahi ditu ikastetxe jakin batzuetan biltzeko. Hurrengo grafikoan aipatutako faktore horiek islatuta daude.

#### 4. Grafikoa. Matrikulazio prozesuan eragina duten faktoreak



Iturria: Egileak egina

Hizkuntza-eredua eta ikastetxea aukeratzeko orduan aipatzen den beste alderdi bat ikasleen adina da eta horrek hizkuntza bat ikasteko duen inportantzia. Adinean aurreraxeago, nerabezaroa hurbil dutela iristen diren pertsonen kasuan erabakia zailagoa izaten da; izan ere, hizkuntza bat ondo ikasteko 3-4 urte behar direla kontuan hartuta, eskolara iristean 9-10 urtetik gora dituztenek oso zaila dute hizkuntza emaitza akademiko egokiak bermatzeko moduan ikastea. Txikiak direnean aldiz, oso erraza egiten zaie hizkuntza eskuratzea.

*“Siempre cuanto más pequeños y pequeñas sean mejor. Son tan permeables y tan plásticos y plásticas, que al final absorben todo enseñada.” (E3:24).*

*“Egia da hizkuntza bat ikasteak ahalegin gehiago eskatzen duela baina txiki txikitan ikastetxera sartzen direnean, ez da inolako arazorik sortzen eta ia ama hizkuntza bezala hartzen dute.” (E4:7).*

*“Berez, edozein mailatan matrikulatzeko eskubidea dute baina ez da batere gomendagarria Lehen Hezkuntzako bigarren mailatik aurrera euskara jakin gabe D ereduko eskola batean matrikulatzea.” (E4:7).*

*“Cuanto más pequeños y más pequeñas sean mucho mejor, cuanto antes mejor. Cuanto antes se integren en una sociedad conviviendo con niños y niñas de su edad, mucho mejor.” (E2:24).*

Adituen arabera, epez kanpoko matrikulazioek zaildu egiten dute ikastetxeen kudeaketa, egituraketa eta plangintza. Izan ere, ikastetxeetan behin baino gehiagotan gertatzen da ikasle batzuk ikasturtea hasita dagoela iristea eta gainera, ez gaztelania eta ez euskara menperatzea. Kasu horietan, gelak berregituratu behar dira.

*“Supone que a veces el trabajo de los grupos se vaya complicando cuando te encuentras de repente que se han incorporado varios alumnos y alumnas en poco tiempo (como este mes que han entrado tres alumnos y alumnas sin idioma). Es decir, eso requiere*



*que haya que, de alguna manera, volver a tener presente que hay que volver a diversificar los aprendizajes en el aula, cuando ya tienes un grupo más o menos estable.” (E1:13).*

*“Para el aula supone no cerrar nunca el grupo y tener que volver a reestructurarlo cada vez que llega nuevo alumnado. Para el centro, seguir sumando.” (E1:13).*

Laburbilduz, elkarrizketatu gehienek uste dute pilaketak eta epez kanpoko matrikulazioak zenbait aldaketa ekartzen dituztela, baina aldi berean nabarmendu dute ikastetxeen arteko oreka gaur egun oso zaila dela erabaki horretan eragina duten faktore indardun batzuk esku hartzen dutelako. Bestalde, hizkuntza berri bat ikasterako orduan adin txikiak (3-6 urte) hoberenak direla nabarmendu dute.

### 5.2.3. Familiak

Atal honetan familiekiko harremana eta familien parte-hartzea eskolan nolakoa den aipatuko da. Familiekin erlazioa kasu guztietan desberdina izan daiteke familia atzeritar bat edo autoktono bat izanda. Baina egia da ere, García Galdeanoko irakasleek gauza berdinean bat datozela.

Eskola eta familia etorkinen arteko erlazioa orokorrean ona da baina batzuetan nahiko kostatzen da harreman konstante bat edukitzea. Bileretara joaten ez diren horiekin, tutoreek sarrera eta irteera orduak aprobetxatzen dituzte “tutoretza saioak” egiteko. Egia da ere, ikaslea helduagoa denean saio horiek edukitzea zailagoa egiten dela, eskolara bakarrik joaten delako. Aldiz, D ereduko familiekin konparatuta, guztiak (edo ia guztiak) bileretara joaten dira eta tutorearekin eta ikastetxearekin duten harremana ona izaten da kasu gehienetan.

*“A las reuniones suele venir el 50% de las familias normalmente, ya sean tutorías o reuniones generales. Por lo tanto, lo que realizamos es un trabajo de campo y aprovechamos el contacto que tenemos cuando salimos fuera a despedir a los alumnos y alumnas para hablar con algún familiar. Nos paramos a hablar con ellos, les hacemos algunas preguntas e intentamos entablar conversación. Aprovechamos más los momentos en los que el alumnado llega y se va del colegio, que las reuniones.” (E1:17).*

*“Con los cursos más pequeños, hacemos muchas tutorías y muchas comunicaciones de patio cuando vamos a recibir o a sacar a los chiquillos y chiquillas.” (E2:9).*

*“Yo hago tutorías de un cuarto de hora todos los días en el patio para comunicarle a la mamá, por lo general, cómo va el niño o la niña. Aprovecho esos momentos para transmitirles todo lo que necesito.” (E2:9).*

*“Cuando son más mayores se complica la cosa, ya que vienen solos y solas al colegio y perdemos ese contacto directo con la familia.” (E3:9).*

*“Familiekin dugun harremana oso ona da orokorrean. Bileretara etortzen dira beti eta bai zuzendaritzarekin eta bai tutorearekin izaten duten harremana ona da kasu gehienetan.” (E4:21).*

Parte-hartzeari dagokionez, familia etorkinen parte-hartzea txikia da eskolan bertako familiekin konparatuta, nahiz eta bertakoena ere berez aski baxua izan. Hori dela eta, adituen iritziz parte-hartze eskas hori eragozpen garrantzitsua da eta nolabait konpondu beharreko zerbait. Parte-hartze txiki hori azaltzeko, zenbait faktore aipatzen dira: hizkuntza, denborarik ez izatea, hezkuntza maila baxua edo jatorrizko herrialdearen eta bizi diren herrialdearen artean egon daitezkeen kultura diferentziak.


*“La principal dificultad es el idioma.” (E2:10).*

*“Muchas veces también, quieres transmitirles que su hijo o hija tiene que trabajar más y ellos te dicen que ellos no pueden hacer nada al respecto. Por lo tanto, tenemos que buscar cómo podemos ayudar desde el centro sin cargar a las familias porque ya están muy sobrecargadas. Eso es lo más complicado.” (E3:10).*

*“Puede que con algún tipo de familia haya una barrera más cultural y por eso se mantengan más distantes con respecto a nosotros como puede ser por ejemplo la población nigeriana anteriormente mencionada.” (E1:17).*

Adituen iritziz, familia etorkinen parte-hartze txikian eragiten duten faktoreak ezberdinak dira, hala nola hizkuntza, denbora, hezkuntza maila eta kultura diferentziak. Hizkuntza aipatzen dutenean, ikastetxean hitz egiten den hizkuntza eta familiaren hizkuntzaren arteko desberdintasunari egiten diote erreferentzia. Hizkuntza desberdina denean, parte-hartzea txikiagoa izaten da komunikazioa zailagoa izaten delako. Denbora beste faktore bat da, izan ere, familia batzuk hiru seme-alaba baino gehiago dituzte eta ama izaten da normalean etxea eta seme-alabak zaintzera denbora osoz dedikatzen dena, aita lanean dagoen bitartean. Aipatzen den beste faktore bat familien hezkuntza maila da eta segun eta zein hezkuntza maila jaso duten, eskolari garrantzi gehiago edo gutxiago ematen diote eta horrek parte-hartzean eragina izaten du. Amaitzeko laugarren faktore moduan, kultura diferentziak aipatu dituzte. Familiaren eta eskolaren arteko kultura-diferentziak oso handiak direnean familien eta eskolaren arteko lerro mardul bat sortzen da, familien parte-hartzean eragina duena. Hona hemen faktoreak laburbiltzen dituen grafiko bat.

## 5. Grafikoa. Familia etorkinen parte-hartze txikian eragiten duten faktoreak



Iturria: Egileak egina

Familiak eskolan parte hartzea eta eskolako jardueretan laguntzea lagungarria izan daiteke ikasleen errendimendua eta gizarteratzea hobetzerako orduan eta, horrez gain, familientzat ere integrazioarako eta sozializazioarako eremua bihur daiteke eskola, ondorengo aipamenek adierazten duten moduan.

*“Por otro lado, siempre los animamos a que participen con nosotros en ciertas actividades para que vean como funcionamos en el colegio. Les invitamos a que acudan a las excursiones y a actividades” (E1:18).*

*“Es decir, que intentamos aprovechar el hecho de ser comunidad de aprendizaje para que las familias también participen de ella. Hemos realizado también cursos de alfabetización para personas adultas por las tardes.” (E1:18).*

Hala eta guztiz ere, zailtasun edo oztopo guztien gainera, familien partetik jasotzen duten feedbacka gehienetan oso positiboa izaten da eta irakasleen lana baloratzen dute.

### 5.2.4. Ikasleen errendimendua

Ikasle etorkinak hezkuntza-etapa bakoitzean dituzten hezkuntza premia nagusiak antzak izan daitezke. Hizkuntza izaten da normalean zailtasun handiena baina ikaslearen nortasuna eta bizitako esperientzia pertsonalek ere, asko baldintzatzen dituzte hezkuntza premia nagusiak.

*“La mayor brecha que se puede ver entre el alumnado inmigrante y el que no lo es, es cuando desconocen el lenguaje vehicular para acceder al currículum.” (E2:11).*

*“Las necesidades que muestran dependen mucho de dónde hayan estado escolarizados anteriormente.” (E3:11).*

*“También depende mucho del carácter de los niños y niñas. Hay algunos y algunas que son muy extrovertidos y extrovertidas y que tienen una adaptabilidad total y rápida, en cambio, a otros y a otras, los cambios les cuestan mucho y, por lo tanto, tenemos que trabajar más la parte emocional.” (E3:11).*

Ikasle etorkin batzuei egiten zaien moldaketa edo egokitzapen bakarra hasieran izaten da eta horiek hasierako egokitzapenak edo curriculumean sarbidea bermatzekoak izaten dira. Denbora aurrera joan heinean, moldaketa horiek desagertzen joaten dira. Gehienetan, hizkuntzarekin zer ikusia duten egokitzapenak izaten dira eta mimika, ahozko hizkuntza eta piktogramak erabilienak izaten dira. Ildo horretan, garrantzitsua da gogoratzea eskolak ikasle immigrantea gizarteratzeko eta haren garapen pertsonalerako duen zeregina eta beraz, ikastetxeak, gizartean sartzea, berdinen arteko harremana eta hezkuntza-sustapena erraztu egin behar du eta ez bakarrik hizkuntzaren ezagutza bermatu (Guerrero, 2013).

*“Con este alumnado las adaptaciones curriculares son de acceso al currículum por falta de la comprensión del lenguaje porque tienen otra lengua de origen. Les intentamos facilitar el acceso mediante muchísimos recursos, la mayoría visuales, muchísimo lenguaje oral, todo muy estructurado y siguiendo siempre una rutina para que puedan sentirse seguros y seguras y cómodos y cómodas.” (E2:15).*

*“Los y las que necesitan cierta adaptación, son adaptaciones de acceso y refuerzo inicial.” (E3:15).*

*“Al principio con mucha mímica y ejemplos visuales vamos viendo en qué nivel se encuentra.” (E3:15).*

Edozein motatako egokitzapen egiteko orduan, ikaslearen momentua errespetatzen da. Ikaslea momentu horretan nola dagoen eta zer behar duen baloratzen da eta ondoren, egokitzapena zein izango den adosten da. Ikaslea ondo sentitzea oinarritzkoena da eta horretarako, momentuan egin ahal dituen gauzetatik abiatzen dira.

*“Casi siempre estamos dos personas para intentar garantizar cubrir toda esa necesidad que el alumnado va generando. Se le hace un acompañamiento más cercano, respetando sus horarios y sus límites y mediante una acogida paulatina. El niño o niña acude al colegio conforme se vaya sintiendo más seguro o segura y se va alargando la mañana hasta que se sienta cómodo o cómoda.” (E2:15).*

*“Hay que partir siempre de lo que ellos y ellas pueden hacer, no hay que ponerle puertas al campo, pero sí partir de sus conocimientos previos y de lo que pueden hacer para que no se desmotiven. Si les exigés más de lo que en ese momento pueden hacer, lo único que vas a conseguir es que se desmotiven y que el mes que viene tampoco lo consigan.” (E3:15).*

*“Dentro del aula, la docencia compartida, los apoyos de PT (pedagogía terapéutica) y los apoyos de AL (audición y lenguaje) son inclusivos, no se saca a nadie del aula. Con eso conseguimos que nadie se sienta distinto o distinta, ya que se mueven por toda el aula y es una ayuda grupal.” (E3:15).*

Garrantzitsua da azpimarratzea ikasleen momentua errespetatzea premiazkoa dela eta horregatik ez zaie momentuan egin dezaketena baino gehiago eskatu behar, lortuko den gauza bakarra motibazioa galtzea delako. Bestalde, hezkuntza laguntza guztia gela barruan jasotzea ikasle guztientzat oso positiboa da desberdintasunak ikusten ez dituztelako.

#### 5.2.5. Gatazkak

García Galdeano eskolan gatazkei buruz mintzatzen, ikasle etorkinen eta autoktonoen artean normalean ez direla arazoak suertatzen azaldu dute. Ikasle etorkinak edo autoktonoak izanda txikiak direnean errespetuz jokatzeko baina egia da, handitzen diren heinean, zenbait jokabide matxista, arrazista eta patriarkalak azaleratzen direla. Jokabide horiek kasu gehienetan ikasleen etapa ebolutiboaren emaitza dira eta ez ikasleen jatorriagatik edo kulturagatik.

*“Conforme van creciendo en los cursos sí, un poco más sí. Pero en los cursos más bajos por ejemplo primero de primaria que es donde yo estoy, producidas por el choque o la distancia cultural no. A veces sí que ven diferencias entre ellos y ellas del tipo religión, idioma, cultura, costumbres, pero todo se respeta con toda la naturalidad del mundo.” (E2:12).*

*Aunque esas diferencias vengan de origen cultural o religioso, se respetan en la medida de lo posible. (E2:12).*

*“En estos cursos sí que puede haber algún choque, pero yo creo es más por la edad que porque provengan de otro país. Creo que sucede porque quieren transmitir su seña de identidad fruto del comienzo de la preadolescencia y a veces, por toda la contaminación social que hay.” (E2:12).*

*“También es verdad que los roces surgen más en la etapa más adulta (quinto y sexto) y puede ser porque están en una situación de cambio de hormonas y no se entienden ni ellos mismos, ni ellas mismas.” (E3:13).*

Arazo, gatazka, kexa edota haserre bat dagoenean, García Galdeanoko eskolan gutunontzi bat erabiltzen dute gertatu denari buruz hitz egiteko. Gutunontzi horri esker, gatazka ezberdinak konpontzeko eta prebenitzeko aukera izaten dute.

*“Además, aquí también tenemos un modelo dialógico de prevención y resolución de conflictos que se trabaja con las asambleas y con los buzones en los que vamos poniendo qué quejas y problemas tenemos. Si un adulto le dice a un menor que cree que lo ha hecho mal, al menor le llegará, pero si se lo dice otro u otra igual, le llega muchísimo más. Trabajamos mucho que los iguales se digan qué no les gusta o qué les ha*

*molestado “mira no me ha gustado esto que has dicho, si no te importa no lo vuelvas a hacer”, “me siento así cuando tú me dices esto”.* (E3:12).

Hala ere, argi eta garbi utzi behar da ikasleak kulturaren aldetik diferentziak ikusten dituztela baina errespetuz jokatzeko dutela. Sortzen diren gatazkak adinagatik izaten dira (nerabezaroan sartzen ari direlako eta haien nortasunaren ezaugarriak erakutsi nahi dituztelako) eta ez kultura desberdintasunagatik.

#### *5.2.6. Aniztasuna kudeatzeko baliabideak eta programak*

García Galdeano eskolan dituzten baliabide ekonomiko eta giza baliabideei buruz hitz egiten, hauek izan dira erantzunak; jasotzen dituzten baliabideak orokorrean hezkuntza premia nagusiak betetzeko nahikoak direla diote, baina, egia da ere, langile gehiagorekin eta diru gehiagorekin gauza gehiago egiteko gai izango zirela eta oinarritzkoak diren behar gehiago bete ahalko zituztela.

*“Tenemos 33 profesores y profesoras y, aunque sea un buen número, no damos abasto”* (E1:33).

*“Creo que sí son suficientes, pero también es verdad que más no vendría mal. Si las dotaciones económicas fueran más, podríamos hacer más salidas complementarias, por ejemplo.”* (E2:31).

*“Siempre podría haber más recursos humanos por supuesto, pero creo que nos organizamos bastante bien con lo que tenemos.”* (E3:31).

*“Si tendríamos más recursos económicos podríamos hacer más actividades complementarias y excursiones. Aquí hay niños y niñas que por la situación socioeconómica que tienen sus familias no se pueden permitir ir a las excursiones y si dispondríamos de más recursos económicos quizás podríamos cubrir todos los gastos.”* (E3:31).

Aniztasuna hobeto kudeatzeko programei dagokienez, García Galdeano eskolak zenbait elkarterekin parte hartzen du, hala nola; Educo (haurren aldeko nazioarteko kooperaziorako) jantokiaren bekak kudeatzeko, Cáritas, Cruz Roja, Siñarubi (haur eta gazteen elkarte) eta ANACE, materialaren itzulpena egiteko. Gizarte zerbitzuekin ere lan egiten dute familien baliabide ekonomikoak direla eta. Bestalde, elkarriketatuen arabera, parte-hartzea ez da nahikoa izaten eta faltan botatzen dute gobernuaren aldetik zuzenean informazio guztia eskolara iristea. Eskolak programa ezberdinak bilatzen egon beharrean gobernuak lista bat ematea eskatzen du.

*“Lo que echo en falta es que desde el gobierno pusieran a disposición de los centros la información de qué programas concretamente podrían ser los que funcionarían en este*

*centro o los que nos podrían dar una cobertura. Creo que no deberíamos ser nosotros los que tengamos que estar buscando asociaciones, programas etcétera cuando surge la necesidad, sino el departamento de educación que debería darnos un listado de recursos para las distintas situaciones.” (E1:42).*

*“Es verdad que podríamos estar en más conexión con distintas ONGs, pero de verdad que no nos da la vida para todo, es inviable. Lo más fácil sería que desde el departamento de educación nos pudieran facilitar esa información.” (E2:29).*

Ruiz Señor ekimenean ere parte hartzen dute Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eskutik eta, nahiz eta ikasle immigranteei zuzenduta ez egon, haiek dira gehien aprobetxatzen dutenak. Proiektu horretan desabantaila soziokulturean dauden ikasleak unibertsitateko ikasleekin elkartzen dira eta zenbait jarduera eta txango egiten dituzte. Ikasleak unibertsitateko mentorea erreferente bat bezala ikusten du eta esfortzuarekin gauza pila lortu daitezkeela bereganatzen du.

*“Es un proyecto que no va encaminado principalmente al alumnado inmigrante, pero sí que es el alumnado inmigrante el más susceptible a entrar en ese proyecto ya que hay mucho alumnado que está en desventaja sociocultural.” (E2:28).*

*“Tanto el niño o la niña como el mentor o la mentora salen por ahí a conocer museos, al cine, a jugar a los bolos, a patinar, etc.” (E2:28).*

*“Suelen crear muchísimos lazos de unión y muchísima conexión y se dan cuenta de que, si se proponen ir a la universidad, ellos y ellas también pueden.” (E2:28).*

Laburbilduz, irakasle guztien iritziz programa guztiak oso baliagarriak eta lagungarriak dira baina elkarteekin kontaktatzeko erraztasun gehiago eskatzen dute.

#### *5.2.7. Dibertsitatearen kudeaketa, plan estrategikoak eta oztopoak*

Atal honetan ikasgeletako dibertsitatearen kudeaketarekin, ikasle etorkinen integrazioarekin, dibertsitatea kudeatzeko plan estrategikoekin eta kulturartekotasunarekin zerikusia duten gaiak eta horiei loturik geletan sortu izan diren eta sor daitezkeen oztopoak bilduko dira.

Dibertsitatearen kudeaketari dagokionez, tutoreek aipatzen dute ez dutela immigrazioari erantzuteko plan espezifikorik ez erreminta espezifikorik erabiltzen. Zenbait erreminta erabiltzen dituzte baina ez ikaslea immigrantea delako, baizik eta zailtasun espezifikoak dituelako.

*“Para gestionar la inmigración, en concreto, ninguna.” (E2:17).*

*“No utilizo ninguna herramienta en concreto.” (E3:17).*

*“Pero no directamente porque sean inmigrantes, sino por otras causas.” (E2:17).*

Ikasle etorkinen integrazioa gelan bermatzeko García Galdeano eskolan erabiltzen duten estrategia bakarra ikasleak berdin tratatzea eta pertsona gisa errespetatzea da, erlijioa, kultura eta hizkuntza alde batera utzita. Ikasle bakoitzaren prozesuak eta denborak errespetatzen dituzte eta egoera guztiak normalizatzen dituzte. Essombak esaten duen moduan “inklusioak begirada aldatzea eskatzen du, non aldea normaltasunez ikusten den, ez ohiz kanpoko egitate gisa” (Essomba, 2006, 92. or.).

*“Tratándolos por igual y respetándonos como personas, independientemente de la raza, religión, cultura o idioma, no hay más. Respetando los procesos y los tiempos de cada niño y niña.” (E2:18).*

*“La mayor estrategia es no ver diferencia. Normalizar todas las situaciones y dar importancia a la cultura de cada uno y de cada una, dando valor al bagaje que tienen. Cada niño y cada niña tiene una historia distinta y, por lo tanto, es mucho más enriquecedor si compartimos culturas diferentes y conocemos cosas que no estamos acostumbrados y acostumbradas. Pero lo que te digo, está muy normalizado dentro del aula.” (E3:19).*

Tutoreen ustez, dibertsitatea eta inklusioa zerbait positiboa da eta gelak hain heterogeneoak izateak aberastasuna eta gauza onak ekartzen ditu beti. Ikasleek kulturantzatasuna asko baloratzen dute eta oso kuriosoak izaten dira besteen kulturari buruz hitz egiten dutenean. Heterogeneotasun hori konplexuagoa da ikastetxe bakoitzean berezitasunak sortzen direnean, kontuan hartzen badugu irakasleak daudela, askotariko ikasleak daudela bakoitza bere gurasoekin, hezkuntza-estrategia espezifikoak daudela eta ingurune batean kokatuta daudela. Denak batera, modu batera edo bestera, eragina du funtzionamenduan, elkarrekintzetan eta eskolatzeko helburuen lorpen-mailan (Ogbu, 1994).

*“Riqueza, con mayúsculas, riqueza siempre. Yo en esta escuela con tal diversidad de alumnado he aprendido un montón de cosas, lo que no aprenderé en ninguna otra.” (E2:21).*

*“La diversidad es maravillosa. El poder aprender de otras culturas, de otros puntos de vista y de otros idiomas es algo maravilloso. Y, la inclusión más todavía. A mí me parece muy enriquecedor para todos y para todas.” (E3:21).*

*“Además, formar parte de una clase que es tan heterogénea y tan multicultural, el respeto todavía tiene más valor.” (E3:21).*

*“Son curiosos y curiosas en ese sentido y tienen ganas de aprender.” (E3:21).*



García Galdeano eskolan dibertsitatea kudeatzeko plan estrategiko bezala, irakaskuntza partekatua erabiltzen dute. Irakaskuntza partekatuari esker gela berdinean beti bi irakasle daude eta biak dira aldi berean saioa aurrera eramaten dutenak. Laguntza eskaintzen duen irakasleak gelan ere sartzen dira eta beraz, kasu horietan hiru edo lau irakasle egoten dira gela barruan.

*“El plan de atención a la diversidad está basado básicamente en la docencia compartida. Intentamos que en todo momento haya dos maestros o maestras en el aula y los apoyos se realizan en el aula sin necesidad de sacar al alumnado de clase. Excepto casos puntuales de logopedia, como pueden ser los alumnos y alumnas sordos implantados que tenemos en la escuela que necesitan un trabajo más especializado e individualizado, el resto de los apoyos se realizan dentro del aula.” (E2:16).*

*“Aprendizajes instrumentales que les ayuden a evolucionar con la ayuda necesaria y la coordinación entre la docencia compartida, la PT (pedagogía terapéutica) y AL (audición y lenguaje).” (E3:16).*

García Galdeanoko tutoreen arabera, hiru dira aurkitu dituzten oztopoak kultur aniztasunez beteriko gela batean. Lehenengoa, hizkuntzaren arazoa da kasu askotan irakaskuntza prozesua zaildu edo moteltzen duelako. Bigarrena, familia absentistak dira. Familia hauei asko kostatzen zaie orokorrean eskolan konfiatzea eta esfortzuari ematen dioten balioa ez da egokiena izaten. Eta, hirugarrena, aurretik aipatutako familia batzuekin duten erlazio eskasa da.

*“El idioma es el problema más grande y después de ese, las familias absentistas y la relación con estas.” (E2:20).*

*“Es necesario que las familias no nos vean como un rival sino como una ayuda, pero nos cuesta mucho.” (E2:20).*

*“Uno de los obstáculos que me he encontrado es el idioma” (E3:20).*


*“El absentismo es uno de los grandes problemas también.” (E3:20).*

*“Depende mucho de los valores que tenga la familia y del valor que le den al esfuerzo.” (E3:20).*

Nahiz eta frogatua egon ikastetxean hitz egiten den hizkuntza jakin gabe ikasle bat primeran integratu daitekeela, hizkuntza desberdintasun horrek prozesu hori geldotzen du kasu gehienetan. Familiekin erlazio eskasa dagoenean integrazio prozesua ere motelagoa izaten da, integrazioa lortzeko ikaslearengan eragina duten agente guztien inplikazioa beharrezkoa delako. Ikaslea bat integratzeko eskolan denbora pasa behar

du eta bere ikaskideekin egon behar da eta beraz, absentismoak prozesu horretan kalte handia egiten du. Beheko grafikoan aipatutako oztopoak ageri dira.

## 6. Grafikoa. Ikasle etorkinen integrazio prozesuan aurkitutako oztopoak



Iturria: Egileak egina

